

Mexikoko folklorea

San Luis Potosiko baleta gurean izan da
KULTURA, 22-23



Joseba Agirrezabala nagusi Elgetan

Mendiko 21. Kriteriuma Elgetako igoerak erabaki zuen
KIROLA, 12-13

Hibai Garai eta Iñaki Uriarte

Euskal Herriko Grafiti lehiaketan izan dira
KULTURA, 25



Goienkaria

ASTELEHENKO
ASTELEHENA • 2005eko uztailaren 18a • 2. urtea • 66. zenbakia • 0,90 euro



Saharako ohiturak ezagutarazteko bi haima edo denda jarri ziren Musakolan. Te-dastatzea ere egin zen.

Mila lagun inguruk egin zuen bat 'Sahara orain' festarekin

Elkartasun jaia izan zen. Jolas ugari egon zen, baita Sahararen egoera gogora ekarri zuen ekitaldia ere

“Festa arrakastatsua izan da”, esan zigun egun amaieran Nubi elkarteko Olaia Sagredok. “Jende asko etorri da eta pozik joan dira eguna amaitutakoan”.

Elkartasunaren festa izan zen, eta baita sentsibilizazioarena ere. Sahararen egoerari buruzko testigantza zuzenak entzun genituen atzo, domeka, Arrasateko Musakolako zelaian. **6-7**

SALAKETA EGUNA
Marokoren jarrera bortitza salatu zuten, eta baita nazioarteko komunitatearen pasibotasuna ere

30 URTEKO BABESA
Euskal Herriaren babesa eskertu eta ezinbestekoa dutela esan zuten



AINZANE AGIRRE

Jende dezente ibili da Antzuolan

Mairuaren Alardean koplak abestu zituzten herritarrek lehenengoz **2-5**

Ruta Quetzal espedizioa Oñatin

De la Cuadra Salcedo ohorezko kofrade egingo du Klaxk taldeak **9**

OGA haserre Oñatiko udal ordezkariekin

Gezurrak zabaltzen ari direla salatu dute asanbladakoek **8**

UGARTE

ARROZTEGIA-ALTZARIAK



Arroz lanak orokorrean • Horma armairuak • Altxariak • Leihoak • Ateak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30




ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91 Faxa: 943 76 08 04

GEUREAN

- MUK hitzarmena sinatu du Diputazioarekin Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak bultzatzeko | 8
- San Martin jaietako danborradarako bandera eroaleak behar dituzte Bergaran | 9

Asteon hasiko dira Elgetan Maala parkea urbanizatze lanak | 9

ANTZUOLAKO JAIKAK



AINZANE AGIRRE

Entsegetan parte-hartzaile gutxi egon arren, zapatuan ez zuen inork kale egin mairuaren alardera.

LAU EGUNEN JAIKAK | LAU EGUNETAN JENDERIK GEHIEN ZAPATUAN IBILI ARREN, EGUENEAN HERRITARREK PARRANDA EDERRA EGIN ZUTEN

Egubakoitz gaueko lanbroak ez zuen jai giroa batera hoztu

Jaiak ondo joan direla eta iaz baino jende gehiago ibili dela adierazi dute udal ordezkariak.

Egubakoitzeko lanbroak mariatxien emanaldia ilundu egin zuen

Marijo Deogracias

Saso baten abuztuan izaten ei ziren herriko jaiak. Orduan beste Ama baten omenez egiten ziren Antzuolako jaiak. Baina urte dezente dira uztailera ekarri zirenetik jaiak eta Karmengo Amaren egunaren bueltan ospatzen dira: uztaileko hirugarren zapatuan egiten da Mairuaren Alardea eta aurreko bi egunetan eta

ostekoa bitartean izaten dira Antzuolako jaiak.

EGUENA HERRITARREN EGUENA

Aurten ere, eguena izan da herrikoek parranda handiena egiteko aprobetxatu duten eguna. Egubakoitz arratsaldera arte iraun zuten sasoiaren eta egubakoitz gauean gazteenek ez, baina beste askok odola falta zuten zai-

netan aurreko eguneko martxa izateko. Gainera, lanbroa egin zuen eta hori ere kalean ibiltzeko traba izan zen. Eskerrak ezkondu aurreko agur-afarietako protagonistak ibili ziren, horrelakoetan jantziarazten zaizkien mozorro barregarriekin, gaua zertxobait alaitzeko –hiru lagunek aukeratu zituzten Antzuolako jaiak agur-jairako–.

MAIRUAREN KARAOKEA

Zapatua egun eguzkitsu eta beroa izan zen, arratsalderako apur bat freskatu zuen arren. Hortaz, Valdejunckerako batailan preso hartutako mairuak herritarrak asto gainetik esku biek agurtzeko eguraldi bikaina izan zuen.

Zapatukoa, gainera, alarde berezia izan zen. Herritarrek,

lehenengoz, Jose Mari Iparragirrek idatzitako alardeko bertsoak kantatzeko aukera izan zuten udaletxetik eskegitako bi estan-

Eguena aprobetxatu zuten herrikoek parranda handiena egiteko

“Antzuolarentzako onra eta gloria” dioen kopia abestu zuten herritarrek mairuaren alardean

darteri esker. Bost bertso jarri zituzten han eta asko izan ziren “gurea izan arte mairuen bandera” eta “Antzuolarentzako onra eta gloria” abestera animatu zirenak.

Osterantzean jaiak ondo joan dira. Horrela azaldu digu Iñigo Ramirez de Okariz kultura zinegotziak. “Zapatuan izandako jende kopuruan oinarrituta, badi-rudi aurreko urteko beherakadari buelta eman zaiola. Eguenean herriko eguna izan zen; egubakoitzean lanbroak pixka bat ilundu zuen gaua; eta zapatuan jende asko etorri zen herri- ra. Giro jatorra ibili da jaietan”.

Orain, San Fermin osteko egunean dioten bezala, urtebete besterik ez da geratzen datorren urteko Antzuolako jaietarako.


ANTZUOLAKO JAIKAK



Mairua zaintzera atera ziren soldaduak zapatuan.



Gertu gae-k ere parte hartu zuen ohorezko aurrekuan.




Udal ordezkarien ohorezko aurrekuak ikusmina sortu zuen berriz ere.



Herriko dantzari gaztetxoek plazan lehenengoz aritzeko zain. Ikurrin dantza egin zuten eguenean.



Eguenean amaitu ziren udalekuak eta herri bazkaria egin zuten gaztetxoek elizpean.



Peñagarikano, Egaña eta honen zigarroa aritu ziren egubakoitzeko saioan.

Ehun ume baino gehiago elkartu ziren egueneko herri bazkaria, udalekuen amaieran

Egueneko bero itzeletik ihesi, elizpean bazkaldu zuten 130 bat neskato-mutikok. Urtero legez, udalekuak amaitu zituzten jaien atarikoan, bazkari eder batekin. Makarroiak tomatearekin eta oilasko errea! Argazkian ageri denez, bapo jan zuten guztiek. Bestalde, txosna batzordeak antolatutako herri afaria bertan behera geratu zen, catering enpresa egunez okertu zela eta. 100 bat lagunek afaria inprobisatu behar izan zuten.

Emanaldi entretenigarria egin zuen Bergarako bandak jaietako ohiko kontzertuan

Urterokoa izateagatik, ez da beti berdina izaten Bergarako Udal Musika Bandak Antzuolako jaixetan egiten duen kontzertua, eta zapatuan emanaldi entretenigarri eta atsegina egin zuen. Gainera, *Antzuolako doinuak* izeneko pieza estreinatu zuen bandak eta bisa ere berarekin egin zuen. Jende dezente elkartu zen Zurrategiko kioskora eta batek baino gehiagok Manilowren *Copacabana* dantza egiteko gogoia ere izan zuen.

Aiherrako ordezkari bat izan zen zapatuan herrian udal agintariekin bazkaltzen

Aiherrako Herriko Etxeko eta Beltzuntze elkarteko ordezkariak izan ziren Antzuolako jaixetan zapatuan. Aiherra-Antzuola lasterketa antolatzen aritu ziren udal agintariek eta herritarrek egin zieten harrera eta baita bazkaltzeko gonbita ere.

Bazkaltzeko orduan egin genien bisita, herriko jate-txe batean. Menu osoa zein izan zen ez dakigu, baina mariskoa probatu zutela bistakoa da.


ANTZUOLAKO JAIKAK



Anelkarrek zozketarako txartelak saltzeko mahaia jarri zuen.



Eskulan tailerretan tatuaiak egiteko aukera izan zuten ausartenek.



Oinarin dantza taldeak hartu zuen herriko plaza, alarde ostean.



Bergarako bandak Antzuolako doinuak pieza estreinatu zuen zapatu eguerdiko saioan.



Aiherrako ordezkaritza izan zen jaietan bazkaltzen.

Anelkarrek 3.372 zenbaki saldu ditu elkartasunezko bost proiektutarako dirua batzeko

Brasil, Zaire, Senegal, Ekuador eta Uruguaiaren alde dirua batzeko zozketa egin du Anelkarrek jaietan. 3.372 txartelak saldu zituen, euro baten truke eta horrez gain, domekan elkarrekin egindako luntxean zestoa jarri zuten borondatea batzeko (222 euro batu zituzten). Zenbaki sarituak hauek izan dira: 1.642 (2.323 ordezkioa) eta 1.530 (2.622 ordezkioa). Lehenak, nekazal turismoan asteburua eramango du; bigarrenak, bidezko merkataritzako otarra.

Herriko 19 elkarterek eta hainbat kirolarik saria jaso zuten Udalaren eskutik

Herri ekimenean egindako lana eskertzeko asmoz, Antzuolako Udalak herriko 19 elkarteren lana goraiatu zuen eta talde bakoitzari plaka oroigarria banatu zien domeka eguerdian egindako ekitaldian. Ostean, Aritz Berrando pilotariak urtean zehar kirol arloan izandako lorpenengatik beste hainbat kirolari gazteri sari bana banatu zien: txirrindularitzan, pilotan, gimnasia erritmikoan, futbolekoan, triatlonean eta ehizan aritutako kirolariei.

Jaiak ondo joan dira eta iaz baino jende gehixeago ibili da zapatu gauean

Zapatua izan zen Antzuolako jaietako egunik jendetsuena. Mairuaren alardeak jende asko batu zuen eta gaueko bi musika saioek ere jendetsuak izan ziren. "Jendea ibili zen bai behean, rock kontzertuan, zein goian, Joselu Anaiekin. Dantzan jende asko aritu zen", adierazi digu Iñigo Ramirez de Okariz kultura zinegotziak. "Penagarriena egubakoitzean bota zuen lanbroa; baina orokorrean jaiak ondo joan dira eta jende asko ibili da".

ANTZUOLAKO JAIKAK



Txosna batzordeak antolatu zuen presoen aldeko ekitaldia.



Eskoletako patioan jarri dituzte barrakak, euro baten.



Domekan, 12:30etatik aurrera, edaria doan jarri zuten txosnek.



Herriko 19 elkarteri omenaldia egin zitzaion atzo, jaien barruan.



Oialde elkarteak gastronomia dastatze bikaina gertatu zuen.

• ZER MODUZ JOAN DIRA ANTZUOLAKO JAIKAK?



ENDIKA, MIKEL, MIKEL, MAIALEN, TXOMIN, IBAI,
ASIER ETA JENNI | ANTZUOLA

Aho batez aitortu ziguten barrakak direla jaietako one-
na, baina "gaueko musika saioak ere gustatu zaizkigu;
Joselu Anaiekin dantzan aritu ginen zapatuan eta egue-
neko bazkaria ere oso ondo egon zen".



JOSUNE, NAGORE, ANE ETA IZASKUN |
ANTZUOLA

Barrakengatik galdetuta "la olla eta la rana gustatu zaiz-
kigu gehien-gehien", azaldu zigun neska koadrilak. Alde-
an zituzten, eta jaietako saltokietan erositako, koloreta-
ko eskumuturrekoak ere erakutsi zizkiguten.



DANEL, UNAI, BEÑAT, ARITZ ETA UNAI |
ANTZUOLA

Barraken gunean zeuden ohe elastikoetara bidean harra-
patu genituen. "Barraketan ibili gara egunero eta baita
plazan dantzan ere", esan ziguten. Domeka eguerdian txis-
torra ere jan zutela aitortu ziguten.

SAHARAREKIN ELKARTASUN JAIA ARRASATEN



LARRAITZ ZEBERIO

Gorka Knörrek itxi zuen eguerdian Musakolan egindako ekitaldi politikoa. Gerra batera goaz, gatoz borrokatik kantua abestu zuen.

'SAHARA ORAIN' JAIA | SAHARAKO GIZA ESKUBIDEEN ZAPALKUNTZA OZEN SALATU ZEN ARRASATEN

Mila lagun inguru elkartu ziren atzo Sahararekin bat egin zuen jaialdian

Saharar umeei ongietorria egiteaz gain gizartea sentsibilizatzeko ere balio izan zuen. "Umeak etortzen dira, baina ezin dugu ahaztu lurralde okupatuetan gertatzen dena", esan zigun antolatzaile batek

Larraitz Zeberio

Goizeko 11etan hasi ziren autobusak eta autoak heltzen. Donostiatik, Getxotik, Sopelatik, Berriztik, Zarautzik, Santurtzitik, Bermeotik... ordurako zabalik zegoen Musakolako txosna, baita Saharako haima edo denda ere. Laster hurbildu ziren bertara iritsi berriak. Bero handia zegoen eta gerizpea eskertu egiten zen.

Esker hitzak entzun genituen atzo, domeka, agintarien ahotik. Aisialdia izan zen festa egunaren ardatz nagusia, baina Saharar

herriaren eskubide bortxaketa ere ozen salatu zen Arrasaten. Marokok okupatutako mendebaldeko Saharako lurraldeen autodeterminazio eskubidea aldarrikatu zuten.

30 URTEKO GATAZKA LUZEA
Eguerdiko 13:00etan ekitaldi politikoa egin zen Musakolan. Tartean ziren, besteak beste, Nubi elkarreko laguna den Begoña Errazti, Arrasateko alkate Ignacio Lakuntza eta hainbat udal ordezkari. Saharar umeei euren herriko bandera erraldoia zabaldu zuten

eta gazte batek aureskua dantzatu zuen. Jarraian, Sahararen aldeko erakundeen koordinatzaile Txomin Aurrekoetxeak hartu zuen hitza. Autodeterminazio eskubidea eta erreferenduma eskatu zituen Sahararendako eta bere hitzak itxaropentsuak izan ziren. "Bi arrazoi ditut baikor egoteko", esan zuen. "Aurten, 7. saioa egin dugu mendebaldeko Saharan sartzeko. Ez dugu lortu, baina lehen aldiz talde politiko guztiak egin dute bidaia gurekin batera".

Bigarren arrazoia atzo, zapatua, jaso zuen eskutitza da. "Alderdi sozialistaren barruan mugimendu bat sortu da Sahararen askatasunaren alde. Estatuko kooperazio idazkari Leire Pajinekin harremanetan egon gara eta uda honetan Zapatero presidentearekin batzeko aukera izango dugula aurreratu digu".

Albiste handia da Aurrekoetxearendako. "Lehen aldiz, Espainiako gobernuak pauso bat eman-

go du gatazka honetan. Ezin dugu ahaztu egungo egoeraren erantzuleetako bat dela".

TESTIGANTZA GOGORRAK

Aicha Chafi saiatu zen baina ezin izan zuen. Berriki, kartzelaratua izan zen eta marokoarren eskue-tan era guztietako bortxaketak

jasan zituela adierazi zuen. "Emakumeen egoera oso larria da. Ezin dugu ezer egin. Marokoren estrategia da gure herria zapaltzeko".

Brahim Gali, Espainiako Fronte Polisarioaren ordezkaria ere argia izan zuen. "Azken egunotan hedabideetan ikusi duzuen Marokoren benetako aurpegia da. Gure herria, bortzikeriari gabe, legez zor zaion eskubidea aldarrikatzera irten denean Marokok errepresio bortitzarekin erantzun du. Bide luzea dugu oraindik aurretik, baina esan dezaket egindakoa baino motzagoa dela".

Euskal herritarren laguntza eta babesa eskatu zuen Galik eta nazioarteko komunitatearen pasibotasuna salatu zuen. "Nahiz eta Marokok behin eta berriz zapaldu, autodeterminazio eskubidea gurea da. Nazioarteko zuzenbideak jasotzen du. Onartu egin beharko digute". Hemengo agintariei ere gogor egin behar zaiela esan zuen amaitzeko.

Nazioarteko komunitatearen pasibotasuna salatu zuten

Sahararrek 'Independentziaren altxamendua' abiatu dute maiatzaz geroztik

SAHARAREKIN ELKARTASUN JAIA ARRASATEN

• ALDARRIKAPENA ETA AISIALDIA BATUTA SAHARAREKIN BAT EGIN ZUEN FESTAN



JOKOAK. Eguerdia hasi ziren haur jolasak Musakolako zelaian. Bainujantzia soinean, saharar zein euskal umeak gustura aritu ziren jolasean. Eguraldi zoragarria atera zuen eta jolas asko urarekin lotuta zeuden. Argazkiko mutikoak egur zati guztiak bildu behar izan zituen eskuan zeramatzan edalontzietatik urik galdu gabe.



TORTILLA LEHIAKETA. Hamalau taldek eman zuten izena tortilla lehiaketarako. Haurrak eta nagusiak batera aritu ziren eta, ikusi genuenez, ahalegin handiak egin zituzten tortillarik goxoen eta politena aurkezteko. Saria, Ortuellak eraman zuen. Bigarren, Leioa izan zen eta hirugarren Getxo. Tortilla pintxoak saldu egin ziren jarraian.



ARROPA SALMENTA. Materiala kutxetan zuten oraindik lehen erosleak gerturatu zirenean; izan ere atzokoa salmenta egun ona izan zen Musakolan. Hainbat koloretako kamisetak ekarri eta saldu zituzten. Ehuneko txanoek ere arrakasta handia izan zuten. Eguzkiak gogor jotzen zuen Musakolan eta gerizpe gutxi zegoen.



500 LAGUN BAZKARIAN. Hasieran 300 lagunendako bazkaria deitu zuten antolatzailerek. Txartel guztiak saldu ziren eta beste 100 otordu ematea erabaki zuten. Ez zen nahikoa izan eta beste 100 eserleku gehitu zituzten. Musakolan, karpa erraldoi baten azpian bazkaldu zuten hainbat herritatik etorritako Saharako lagunek.

• ESKER HITZAK ETA LURRALDE OKUPATUEN ORAINARI ETA ETORKIZUNARI BURUZKO ADIERAZPENAK




OLAIA SAGREDO |
EUSKADIKO SAHARA ELKARTEA

“Aski da esateko bildu gara gaur Arrasaten. Espainia eta Maroko dira Saharar herriak bizi dituen zatiketa, erbestea eta erreprezioaren lehen erantzuleak. Ume hauek egungo egoeraren alderik ahulena ordezkatzen dute. Espainiako gobernuari exijitzen diogu eskura dituen baliabide guztiak -ekonomikoak, politikoak eta diplomatikoak- erabiltzeko herri honen eskubideen alde”.



AICHA CHAFI |
EMAKUME SAHARRA

Berriki pairatu du Aichak Marokoren erreprezioa. Kartzelaratua izan zen, eta senarra ere bai. “Emakumearen egoera azaldu nahi dizuet. Marokok debekatu egin digu ikastea zein lan egitea. Ezinezkoa zaigu bizimodu normala egitea. Torturak, bortxaketak eta irainak egunero gertatzen dira”. Bere bizipenak azaldu nahi zituen baina ezinezkoa izan zitzaion. Berrikiak ziren.



BRAHIM GALI |
FRONTE POLISARIOA, ESPAINIA

“Eskerrak emateko eguna da gaur. Euskal Herriak 30 urte daramatza Saharar herriarekin bat eginda. Ez dugu sekula ahaztuko. Esan behar dut, gure herria une erabakigarri batean dagoela. Marokok, berriki, gure eskubideak aldarrikatzeko kalera irten diren herritarrak atxilotu eta espetxeratu ditu. Fren-te Polisarioak, berriz, 408 preso marokoar askatu ditu”.



TXOMIN AURREKOETXEA |
ELKARTEEN KOORDINATZAILEA

“Elkarkidetasunerako erreferentea dira gure bi herriak. Jende askori eskerrak eman beharrean gaude; instituzioak, elkar-teak, familiak... Baikorra izan naiz beti baina egunotan inoiz baino baikorragoa naiz. Marokok ezin du Saharar herria luzaroan zapaldu. Urteroko bidaian alderdi politiko guztiak joan gara aurtu lehen aldiz Mendebaldeko Saharara. Lortuko dugu”.



MOHAMED EL MAMUN |
FRONTE POLISARIOA, EUSKADI

“Esker hitzak besterik ez dituzten herriarendako. Instituzioak, elkar-teak, gure umeak etxean hartu dituzten familiak, hainbat Udala eta, bereziki, Arrasateko Udala... Garaipen handia da gu gaur elkarrekin hemen egoitea. Elkarrekin egingo dugu eguna, eta festa giroan gainera. Bizikidetasunaren eredu da gaurko jaia. Eskerrik asko guztiei egindako harrerarengatik”.



LARRAITZ ZEBERIO

Oñatiko herriko plazan aldarrikatu zuten autogestioan oinarritutako gaztetxe askea OGAKo kideek.

Udal ordezkariak "gezurra" esan dutela salatu du OGAK

"Asanbladakook eskola-porrota izan dugula eta etxean arazoak ditugula" bezalako zurrumurruak zabaltzea leporatu diete

Larraitz Zeberio

Oñatiko gazte asanbladak ekain amaieran egindako plazaren okupazio sinbolikoak zeresan handia eman du herrian. "Udal ordezkari batzuk sekulako astakeriak esaten hasi dira asanbladako kideen gainean: eskola-porrota izan dugula eta etxean arazoak ditugula. Ez ginela inoiz negoziazioaren alde agertu... eta guk gure bertsioa eman nahi dugu", esan zuten OGAKoek zapatuan herri-

ko plazan egindako prentsaurrekoan. Horrekin batera, okupazio egunean mehatxuak jaso zituztela, ertzainek grabatu egin zituztela eta Andoni Gartziaren jarrera hipokrita izan zela salatu zuten. "Gezurti hauei esan nahi diegu ez dugula ezer ezkutatzeke, ezta zertaz lotsatu ere. Guk egindakoa argi ikusi zen eta gezur hauek ez gaituzte geldituko", gehitu zuten. Bestalde, bileran baterako hitzordua ere bazuten Udalarekin, baina honek atze-

ra egin duela esan zuten "eurek jakingo dute zergatik".

SINADURA BILKETA

Gaztelekuaren aurkakoak ez direla azpimarratu zuten: "Kontua da hasieran autogestioan oinarrituko proiektua zela eta gaur egun Udala da gestore bakarra. Guk gune estali autogestionatua eta askea aldarrikatzen dugu". Horren haritik, uztailaren 5ean etxe hutsa okupatu zuten. "11:00etan sartu eta garbitzeari ekin genion. Jabearekin izan genituen istiluen ondorioz, eta asanbladan eztabaidatu ondoren, etxetik irtetea erabaki genuen". Sinadurak batzen ari dira gaztetxearen alde: "Ez dugu etsiko lortu arte".

• DOMEKAN, GAZPATXO UGARI ARRASATEKO EXTREMADURA ETXEAN

200 LAGUNEK DASTATU ZITUZTEN GAZPATXOA ETA SARDINA ERREAK

Hamaiketako bikaina egin zuten atzo, domeka, Arrasateko Extremadurako etxean. Bero handia egin zuen eta ondo sartzen zen bertako lagunek prestatutako gazpatxo freskoa.

"Berakatzatza, olio, ozipina, ogia, gatza, tomate eta pepinoa erabili ditugu gazpatxo prestatzeko", azaldu zigun elkarteko lagun batek. 80 litro prestatu zituzten eta iritsi ginenean egoitzako terrazan zuten, gerizpean, lapiko handia. "Sardinak ere erre ditugu, hamar bat kilo", gaineratu ziguten.

"Urtero egiten dugu festa txiki hau. 200 lagun inguru batu gara aurten ere".



LARRAITZ ZEBERIO

MUK hitzarmena sinatu du Aldundiarekin eta IKTen erabilera bultzatuko du

A.G.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru milioi euro jarriko ditu datozen hiru urteotan Mondragon Unibertsitateak bultzatu ditzan Informatzioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKTak) eta euren erabilera. Barikuan sinatu zuten hitzarmena Berrikuntzako foru diputatu Joaquin Villak eta Mondragon Unibertsitateko errektore Inaxio Oliverik.

Jakintzaren Gizartea indartzea du helburu bi erakundeek sinatu berri duten hitzarmenak, eta esparru honetan unibertsitateek funtsezko zeregina dutela uste du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Diru laguntza IKTen erabilera sustatuko duten proiektuak finantzatzeko erabiliko du MUK: azpiegiturak eta berariazko ekipamendu aurreratua finantzatzeko, hain zuzen ere. Noski, berrikuntza pedagogikoaren esparruan ere bere eragina izango du sinatu berri den hitzarmenak.

HITZARMENAREN HELBURUAK

IKTen erabilera indartzea da hitzarmenaren helburu nagusia. Kudeaketa era berriak sustatzea ahalbidetuko du, esaterako enpresa eta unibertsitateen artean. Ez hori bakarrik, IKTen erabilera intentsiboan oinarritutako euskarri pedagogikoen garapena gauzatzeko aukera ere emango du. Irakaskuntza-ikaszkuntza prozesuak hobetzeko pedagogia eta zientzia ikasketak sustatzea, besteak beste.

BIGARREN HITZARMENA

Ez da hau Foru Aldundiak eta MUK sinatzen duten lehen hitzarmena. 2003. urtean ere sinatu zen beste bat. Unibertsitatearen kudeaketan IKTen oinarrituko plataformak garatzeko egin beharreko inbertsioetarako kasu hartan. Bi erakundeek egindako balorazioaren arabera, aurreko hitzarmenaren adierazitako helburuak behar bezala bete dira. Esperientzia on haren ildotik gauzatu da akordio berria.

• SANTA MARINAKO JAIK ARRASATEN



AINTZANE AGIRRE

230 LAGUN ERRETIRATUEN BAZKARIAN

La Merced ikastetxean egin zuten bazkaria zapatuan Santa Marina auzoko erretiratuek. Aurten, gainera, aspaldi honetan zerbitzari lanetan aritu diren hamar pertsonak gonbidatu moduan gozatu dute bazkaria. Omenduak ere izan zituzten Santa Marinan. Aurten, Manuel Garcia eta Ursula Aspe izan dira. Iaz ere eurek jaso zuten omenaldia. "Festa polita egin genuen", azaldu digu auzoko Mariano Azkarak. "Dantzaldia ere egin genuen txarangarekin. Ezin erretiratu!"

0 km eta erabilitakoak

Volkswagen Multivan TDi /00
Volkswagen Multivan TDi /99
Ford Transit TDCi /01
Ford Transit TDCi /02
Peugeot 307 HDi /02
Peugeot 306 HDi /01
Peugeot 206 HDi /01
Ford Focus Wagon TDi /02
Ford Focus Wagon TDi /02
Toyota Wagon DHD /02
Ford Galaxy TDi /02

Citroën Berlingo HDi /02
Seat Ibiza SDi /02
Ford Fiesta TDCi /04
Subaru Imp 2.0i TT /97

4x4:

Toyota Land Cruiser /99
Toyota Land Cruiser /01
Toyota Land Cruiser /00
Mitsubishi /98
Opel Frontera Sport /02

MENDIOLA

San Andres 10 D
Tel.: 943 77 21 00
ARRASATE

Albiste izango da

ELGETA | ABENDUAN BUKATUKO DITUZTE

Asteon hasiko dira Maala parkea urbanizatzeko lanak

Maala parkea urbanizatzeko lanak asteon hasiko dira. Proiektu horren barruan, Espaloia Kafe Antzokira arteko bidea egokituko dute eta plazatxoak ere egingo dute orain dagoen orubean. Gune berdea ere izango du eta baita San Rokerekin lotzeko bidea ere.

Maala parkeaurbanizatzeko proiektuaren aurrekontua 320.275 euro da, eta Gipuzkoako Foru Aldundia egingo da zati baten kargu; 145.000 eurorena, hain justu ere. Elgetako Udalak aurreikusi du abendurako bukatuta egongo dela Maala parkearen urbanizazioa.

OÑATI | URBIA, ARANTZAZU ETA OÑATIN IBILIKO DIRA

Ruta Quetzal espedizio 400 bat lagun iritsiko dira egunean

Egunean, hilaren 21ean, Ruta Quetzal espedizio ezaguna Oñatira iritsiko da. 400 bat lagunek hartzen dute parte eta egun osoa emango dute Oñatin. Araba aldetik, Elgea menditik barrena, Urbia iritsiko dira 08:00ak aldera. Handik, Araotzera joango dira eta arratsalderako jaitsiko dira herrira. Urbian artzaintzaren ezauzgarriak ikusiko dituzte gertutik. Arantzazuko santutegia ere ikusiko dute eta Araotzen Lope de Agirreren jaiotetxea.

17:00etan iritsiko dira Oñatira eta herrian barrena bisita gidatua egingo dute. Horrez gain, Klaxk elkarteak txokolatea emango die meriendatzeko. Gainera, txokolatearen harira sortutako talde horrek Miguel De la Cuadra Salcedo ohorezko kide izendatuko du.

ARRASATE | IZENEMATE EPEA ETZI BUKATUKO DA

Bartzelonako gazteekin truke kulturala egingo du Txatxilipurdik

Hilaren 20tik 27ra bitartean, Bartzelonako gazteekin truke kulturala egingo du Txatxilipurdik. Horretarako, egunero, ekintzak antolatuko dituzte: hilaren 21ean, eguna, ongi-etorri ginkana egingo dute; 22an, egubakoitza, mendi buelta; 23an, zapatua, Zugarramurdira eta Hendaiara txangoa, eta hurrengo egunetan, murala, baserri batera bisita, tailerrak, eta afari-merienda egingo dituzte. Zinemara ere joango dira.

Ekintza horietan parte hartu nahi duenak, izena eman behar du hilaren 20a (etzi), baino lehen. Bestalde, eguaztenez, zinema eta afari-merienda izango dira Pablo Urangako egoitzan, 19:30ean. Izena emateko, deitu 943 79 54 46 edo 943 77 17 39 telefonoetara.

BERGARA | 14-15 URTETIK GORAKOEI EGITEN DIETE DEI

San Martin danborradarako bandera eroaleak behar dituzte

San Martin jaietan egiten den danborradarako bandera eroaleak behar ditu udalak. Halaxe eman nahi du jakitera Bergarako Udaleko Kultura zerbitzuak bidalitako oharrean. Izena ematen dutenak umeak izan ohi dira eta Kultura zerbitzutik 14-15 urtetik gorako koadrilak animatu nahi dituzte izena ematera. Oharrean azpimarratu dutenez, "herriko ohitura nagusienetarikoa eta kultura ondare handia jokoan dago".

Danborradaren ganean informazio gehiago izateko edo izena emateko deitu 943 77 91 60 telefonora (Nagore Narbaiza).

ARAMAIO | UZTAILAREN 26RA ARTE DAGO EPEA

Garajeak egingo dira jendeak horrela eskatzen baldin badu

Aramaion egingo dituzten babestutako etxeen azpiko aldean garajeak egiteko aukera dagoela eta, etxebizitzak egingo dituen enpresak garaje eskaria zerbatekoa den ezagutu nahi du. Antza denez, Udalarik horrela adierazi dio, "garajeak egiteko aukera bada, baina aurretik beharrezkoa dute jakitea garaje horiek erosteko jenderik badagoen interesatuta".

Hortaz, Pedro Inazio Barrutia kalean egingo diren babestutako 44 etxebizitzaren sotoetan garajerik gura duenak, izena eman behar du udaletxeko bulegoetan. Horretarako epea uztailaren 26an amaituko da.

Hitzorduk



UDAZ GOZATZEKO HAINBAT IRTEERA EGINGO DITUZTE ERRETIRATUEK | Arrasate, Bergara eta Oñatiko elkarteek bidaiak antolatu dituzte

Eguraldi onarekin batera, Debagoieneko erretiratutako elkarteek hara eta hona bidaiatzeko aukera aprobetxatu nahi dute. Hala, elkarteek bidaiak asko antolatu dituzte: etzi, eguaztenez, Donostiara joango dira Bergarako erretiratutakoak, eta Bakiora, berriz, Arrasateko Uribarri auzokoak, egunean hauek.

Udazkenean ere zenbait irteeratan izena emateko aukera ematen dute beste elkarte batzuek. Esaterako, irailean, Oñatiko Pake Leku elkarteak Parisera joango dira, eta Bartzelonako kostaldera Abaroakoak. Toki Argikoeak, Arrasatekoak hauek ere, Galiziara bidaiatuko dute urrian.

ANTZUOLA |

• **Kirol Elkarteak batzar orokorra egingo du**
Antzuolako Kirol Elkarteak batzar orokorra egingo du hilaren 21ean, eguna, udaletxean, 19:30ean.

ARAMAIO |

• **Adineko senideak zaintzeko dirulaguntza eskaera**
Etxean laguntza behar duten senideak zaintzen dituztenek dirulaguntzak eska ditzakete. Abuztuaren 11ra bitartean dute horretarako epea Udaleko Oinarriko Gizarte Zerbitzuetan. Zenbait baldintza bete behar dira: 25 urtetik gorako izatea, Araban erroldatuta egotea azken hiru urteotan eta adinekoarekin familia-loturaren bat izatea, beste batzuen artean.

ARRASATE |

• **Bi udal zerbitzuren uztaileko ordutegia**
Zenbait udal zerbitzuko ordutegi berezia dute uztailean. Hala, gazte bulegoak 10:00etatik 14:00etara zabaltzen du astegunetan, eta 17:00etatik 20:00etara, bakarrik astelehen eta martitzenetan. Sexologia Zerbitzuak 11:00etatik 13:00etara zabaltzen du astelehenetan, 16:30etik 20:00etara eguaztenez eta 11:00etatik 13:00etara egubakoitzetan.

BERGARA |

• **Gazta-dastatze ikastaroan izena emateko aukera**
Irailaren 8an egingo dute gazta-dastatze ikastaroa, eta, 25 lagunendako lekua bakarrik egongo denez, lehenbailehen izena emateko eskatzen dute. Edozeinendako da, baina bergarrek izango dute lehentasuna. Deitu 943 77 91 59 telefonora (kultura etxea) irailaren 9a baino lehen.
• **Bedelkarren zozketako zenbaki saridunak**
Bedelkar merkatari elkarteak udako zozketa egin berri du, eta zenbaki hauek dira saridunak: 44.631 zenbakiarendako, 500 euroko erosketa-bono saria; 73.473 zenbakiarendako, 300 euroko erosketa saria; eta 24.462 zenbakiarendako, 200 euroko erosketa saria.

DEBAGOIENA |

• **Landa eremuko II. Ideia eta Proiektu Berritzaileen saria**
Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak antolatu du lehiaketa hori nekazaritza eta landa eremuekin zerikusia duten ekimenak bultzatzeko. 1.000 eta 500 euroko sariak emango dituzte. Irabazleari, gainera, 3.000 euroko beka emango diote bere proiektua egin ahal izan dezan. Txostenak honako helbidera bidali behar dira: Urteaga, 23; 20.570 Bergara.

OÑATI |

• **Natur Eskolak ibilbide gidatuak antolatu ditu**
Hilaren 23an, zapatua, basoa eta ikazkintzaren gaineko ibilbidea egingo dute. Izena emateko, deitu Turismo Bulegora (943 78 34 53). Abuztuaren 14ra bitartean, zortzi ibilbide gidatu egiteko aukera izango da. Horrez gain, Unibertsitateko turismo informazio gunea zabalik izango da honako ordutegian: asteburu eta jaiegunetan, 11:00-14:00.
• **Parte-hartzaileak behar dituzte danborradarako**
Dantzari eta danborrariak behar dituzte aurtengo jaietako danborradarako. Dantzariak 1988. urtean jaiotakoak izan behar dute; danborrariak, 18 urtetik gorakoak. Izenematea zabalik dago kultura etxean edo gaztelekuko informazio gunean uztailaren 28ra arte. Izena ematen duten koadrilaren arteko zozketa irailaren 1ean egingo dute.
• **Abuztuko kirol jardueretan izena emateko aukera.**
Abuzturako kirol ikastaroak antolatu ditu Udali Kirol Sailak, eta izenematea uztailaren 26an bukatuko da. Besteak beste, tenis, minitenis, waterpolo, badminton, igeriketa, aquagym eta piraguismo ikastaroak daude aukeran, abuztuaren 2tik 12ra eta 16tik 26ra.

Iritziak



Isilpekoak

943 76 92 71
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• San Prudentzioko biribilgune arriskutsua

634 errepedeak kexa asko eragiten ditu gure irakurleen artean eta asteon ere jaso dugu beste txistu bat; Elorregi auzoan dagoen biribilgunearen gaineko txistua izan da: "San Prudentzion egin duten biribilgunean, Oñatitik Bergararako zatian, zubiaren lotura arriskutsuak jarri dituzte. Burdinazkoak dira bi lotura eta autoaren gurpilek laban egitea eragiten dute. Errepidea siku-siku dagoenean igarri egiten da autoak jauzi txiki bat egiten duela; errepidea bustita dagoenean, autoa ia geldirik dagoenean ere, irristatu egiten da eta autoak derrapatu egingo duela ematen du. Ez dakit zein den arazoa, baina ondo legoke burdinazko xafla horiek estaltzea hor dabilzan auto guztiei lasaitasuna emateko".

• Zuloak tapatzeko eskaria

Errepideez ari garela, beste irakurle batek Elgetarako errepidean egin dituzten konponketen gainean txaloak eta txistuak bidali dizkigu. Alde batetik, txaloak bidali dizkigu egindako konponketak direla eta: "Bergaratik Elgetara igotzea asko erraztu da errepidean egin dituzten zabaltze lanei esker. Ubera eta Izarreko bihurtzeak zoragarri laga dituzte". Baina txistuak ere gehitu ditu gure irakurleak: "Hala ere, hainbeste denbora errepidea konpontzeko zain egon ostean, eta hainbeste lanak egin ondoren, lastima da bi bihurtze horien arteko asfalto bere horretan laga izana. Aukera bikaina izan du Foru Aldundiko errepide sailak gorainoko bidean dauden zulo guztiak konpontzeko, baina bihurtze zailenak zabaldu eta zati horietan asfalto bikaina jartzearekin konformatu dira. Guk geuk, gidari koitaduok, sufritzen jarraitu beharko dugu zuloekin; edo gure autoak".

Sarean harrapatuta

Kanpanzar harrobia barrutik ustiatuko dute

Irailean sinadura bilketarekin jarraituko dute Bai Udaltx plataformakoek proiektuaren aurka. "Gure gizartearen kontsumo mailaz eta Debagoienean martxan dauden lau harrobiez eztabaida zabaldu" nahi dute

plataformako kideek. *Goiena.net*-en aurkeztutako eztabaidan jende ugari parte hartu du. Askotariko iritziak jaso dira sarean; hona hemen proiektuaren aldeko eta aurka-ko iritzi batzuk.

HERRITARREN IRITZIA ERRESPETATU

Bai, erreferenduma egitearen ideia oso egokia da, baina zertarako balioko du? Kasu egingo diote emaitzari? Ikusi bestela Boroako Zentral Termikoaren gainean egindako erreferendumarekin zer gertatu zen. Jaurlaritzak du herriaren ahotsa errespetatu. Interes asko daudela uste dut!

Jony Manson / www.goiena.net

EZ ZAIT GAIZKI IRUDITZEN

Hain gaizki ere ez zait iruditzen. Azken finean harria behar dugu etxebizitzak, errepedeak... egiteko. Eta harria ateratzeko zenbat eta kalte gutxiago orduan eta hobeto. Mendiaren azpitik harria ateratzea bada egokiena, aurrera.

Juli / www.goiena.net

LOTSAGARRIA DA UDALATX USTIATZEA

Benetan lotsagarria iruditzen zait Udaltx mendia barrutik edo eta kanpotik ustiatzea. Nahikoa hondatu dute mendia, utz dezatela bakean. Gure herriak duen ondasun handienetakoa ezin dugu horrela galtzen utzi! Nire ustez herri galdeketa egin beharko litzateke herritarren iritzia jakiteko.

Ni neu / www.goiena.net

AZPIEGITURAK BEHARREZKOAK DIRA

Niri ez zait horren gaizki iruditzen. Egia esan, beharrezkoak dira azpiegiturak herri baten garapenerako. Debagoienak arlo horretan gabezia handia daukala uste dute. Batez ere, garraio publikoan, eta beraz, Udaltxen ustiaketa guztion hoberako bada ondo iruditzen zait. AHT esaterako hortik pasatu behar da eta proiektu hori oso garrantzitsua da batez ere merkataritzarako.

Nerea Igartua / www.goiena.net

INTERES EKONOMIKOAK AGERIAN

Interes ekonomikoak tartean daudenean herriaren borondatea ez da inoiz errespetatzen. Berdin da mendia zulatzea edota naturaren aurka egitea. Dirua dirua da eta etekinak ikustean denok itsutzen gara; interes asko dago.

Perutarra / www.goiena.net

GURE ESKUALDERAKO KALTEGARRIA DA

Lau harrobi ez dira ba nahikoa ingurumena apurtzeko? Oraindik triskantza handiagoa egin behar dute? Eta gainera, AHT hortik pasatu behar da, eta betikoa da: gure eskualdeari kalte egin behar diote zertarako, eta hiriburuen mesederako den baliabide erraldoi baterako. Ez dute behar bezala azaldu proiektu hori, beti bezala gauzak inori galdetu gabe erabaki dituzte, horrek zer pentsatua ematen du, ezta?

Ane / www.goiena.net


ADOS NEREAREKIN

Herri batek ez du inoiz aurrera egiten azpiegitura txarrekin. Lana edukitzeko, enpresak etorrarazi behar dira eta azpiegitura hauekin, hemen, hemengoak eta kitto. Betiko lana, fabrika, ez dago beste aukerarik eta pena bat da.

9. / www.goiena.net

www.goiena.net

Ondo iruditzen zaizu Kanpanzar harrobia barrutik ustiatzea?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Alderdien mahaia deitzen den eztabaidaguneak lanari ekingo diola uste duzu eta mahaia eratu



MARTIN GARITANO | KAZETARIA

Ez dut zalantzarik. Zeintzuk eseriko diren eta zeintzuk kale egingo duten, beste kontu bat da. Alderdi Sozialistaren presentzia oso garrantzitsua da, PP ez baita, gaurkoz, eseriko. Badakite beharrezkoa dela euskal gatazka konpontzeko, alderdikeriek kontratua agintzen badute ere.



MAITE ARISTEGI | NAZIO GARAPEN BILTZARRA

Ia inor gutxi ukatzen du, gatazka politikoari irtenbidea emateko alderdi den artean berba egitea beste biderik ez dagoela. Bere denboratxo beharko du, hau ez baita Ikeako mahai bat; estropezuak, erorialdiak izango dira, baina hurrengo ikasturtean zutik ikusiko dugu.



JOSE RAMON ELORTZA | ELKARRIKO KIDEA

Derrigorrean osatuko da, Euskal Herriaren beharrek horrela eskatzen dutelako. Ez gaude ezer oparitzeko moduan. Denbora beharko bada ere, ni baikorra naiz; Batasunak ere esan izan du elkarriketaren alde egiten duela eta PP eta PSOEekin ere hitz egin izan da aurretik ere.



MIKEL USABIAGA | HUHEZIKO IRAKASLEA


Azken 25 urteotan alderdi bakotzak bere plan edo mahaia antolatzen du, besteak bere konponbidera erakartzeko, eta ez da emaitza onik irten. Bitartean, gizarteak bere bidea egin du aldaketa sozial sakonak gertatuz eta ikuspegi berriak eskatuz. Horrela ondo bizi izan badira, zergatik aldatu?



Egunkarietako harribitxiak

MARMOKAK MEDITERRANEOAN

Uretara sartu eta marmokak aurkitzea ez da gozoa izaten. Bada, aurtengo udan kontuz ibili beharko dira Mediterraneoko uretan bainatu nahi dutenak. Egindako beroaldiek marmoken ugartzea ekarri dute. Bartzelonan, Murtzian eta Malagan ugartzea nabarmena izan da.



'El Semanal'
2005-07-17

AURREZTEKO GARAIA IRITSI DA

Argindar kontsumoa etengabe hazten ari da, eta erabilerari ahalik eta eraginkortasun handiena ateratzeko asmoz hainbat neurri abian jarriko dira, tarifa garestitzea barne. Oraingo, ezarritako potentziak dagoen eskariari erantzuteko adina argindar eta gehiago sortu dezake. Baina etorkizunean, hornidura bermatu ahal izateko, beharrezkotzat jotzen da kontsumoaren erritmoa

geldotzea. Estatuan azken hamar urteetan %50 hazi da kontsumoa. Hala, elektrizitate eskariari galga jartzeko asmoa dute Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako eta Espainiako Gobernuak. Eraginkortasun energetikoa da hitz magikoa. Aurrerantzean, etxebizitzek argiago ibili beharko dute argindarra erabiltzerakoan, xahutzea zigortzeko asmoa baitu Espainiako Gobernuak.

'Berria'
2005-07-17



Zorroztalea



Zilindrodun lehoiak

World Series lasterketak Bilbo hiria geldiarazi du. Zirkuituaren diseinu aldrebesa oso gaitzetsia izan da, baina hiriak bere irudi moderno nazioarte mailan zabaldu nahi du. (...) «Ausartak izan behar dugu, eta hau bezalako ekitaldiak antolatzen jarraitu», dio Bilboko alkateak, Iñaki Azkunak.

Iñaki Azkuna
'El País' | 2005-07-17

James Bond-en azken filmaren irudiak bertan filmatu zirenean ere, mundu mailako oihartzun mediatikoa ikaragarria izan zen. Aspaldi honetan, Bilbok leih bat mundura zabalik dauka.

Bilboren birsortzea 1997an gertatu zen, Guggenheim Bilbao Museoa zabaldu zenean. Orduan, eta hiri honen eskutik, euskaldunok ikuskizunaren kulturaren sartu ginen ate handitik, honek dakarren itxurakeria guztiarekin.

Orduan, eraikina museoaren edukia bera baino garrantzitsua zela ikusi genuen; oraingo honetan, zirkuitua lasterketa bera baino askoz ere funtsezkoagoa dela. Kontraesanez kontraesan, mundu globalaren arauak, nonbait, ongi ikasita. Zalantzarik ez, XXI. mendean badugu munduan barrena euskaldunon erreferentia izango den hiria. Hau bilbainada!

Juan Luis Azkarate

“Bilbon, lehoiak ez dira orroka dabilzan bakarrak”. Zapatuko egunkari batean, orrialde osoko iragarri batek zioena. Bilbainada, bai. Lelo borobila, ere bai.

Ez naiz motorzalea eta ez zait inondik inora egokia iruditzen, Mad Max-en itzalpean bizi garen aro honetan, auto lasterketek egiten duten petrolioaren kulturaren gorai-pamen zaratsua. Hau eta beste arrazoi batzuk tartean, Zirkuiturik ez!!! (hiru harridura markarekin eta negatiboan, betiko estilo traketsean) plataformakok arrazoi osoa izango dute, nonbait, baina lerro hauek argitaratzen direnerako, egia esan, ia inor ez da eurekin gogoratuko.

Jendeak lasterketa, eta batez ere zirkuitua, izango ditu gogoan. Eta, bide batez, Bilboko hiri-marka indartsuago munduan zehar.

“Bilboren eskutik, euskaldunok espektakuluaren kulturaren sartu ginen ate handitik, honek dakarren itxurakeriarekin”

“Zalantzarik ez, XXI. mendean badugu munduan barrena euskaldunon erreferentia izango den hiria. Hau bilbainada!”

Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2005-VII-17

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

ELKARRIZKETA

“Ez dut konfiantza handirik Zapaterorengan. Egia da eskertu behar zaion apustu publikoa egin duela, baina urtebete daramagu Zapaterorekin gobernuan eta ez du distentsiorako pausorik eman. Presoen gaia beti bezala dago; Aukera Guztiak eta Batasunarena hor dago. Uste dut PPrekiko beldurra dagoela urratsok emateko orduan”.

Joseba Azkarraga
2005-07-17

'El Diario Vasco'

ELKARRIZKETA

“Zinegotziek lasaitzeko denbora behar dute. ETAk erasotu ez arren, kale borrokaren presioa ezin da ahaztu. PSOEko edo PPko zinegotzi bati bizkartzainak kenduko bagenizkio orain, baliteke ETaren atentaturik ez jasatea, baina ezin duguna egin da, euren herrian erasotutak edo jipoitutak izateko aukera ahaztu”.

Javier Balza
2005-07-17

'Berria'

ELKARRIZKETA

“Lidergoa nori dagokion bigarren mailako kontua da. Zein da Gobernuaren eta lehendakariaren eginkizuna? Eragile aktiboa izatea, bakea eta normalizazio politikoa lantzeko eta lortzeko. Kontua ez da protagonismo politikoa edukitzea, baizik eta eragile aktiboa izatea. Gainera, hori ere diskrezio osoz eta apaltasunez egin behar dugu”.

Juan Jose Ibarretxe
2005-07-17

'Deia'

ELKARRIZKETA

“Esquerrarentzat Estatut berria garrantzi handiagoko helburuak lortzeko pausoa da. Une historiko baten aurrean gaude eta posible da aurrerapausoak ematea, nahiz eta ez izan nahiko genituzkeen guztiak. Baina zer egingo dugu? Gaudenetan geratu ala geroa optimismo handiagoarekin begiratu eta zer gehiago egin dezakegun aztertu?”

Ernest Benach
2005-07-17

- Fo Fo Fo liqan eta A Ze Flaxa Galways kopan Ipintzako txapeldunak | 15
- 22-20 irabazi zuten Xala eta Galartza Vlak Eugi eta Elkororen kontra | 19



Ane Herrero Euskal Seleksioko eskubaloijokari arrasatearrarekin egon gara | 21

EUSKALDUN MAILAKO TXIRRINDULARITZA PROBA



Halaxe gelditu zen osatua aurtengo mendiko kriteriuma. Joseba eta Victorrez gain, Ametz Txurruka (Euskaldun probetako lehen sailkatua) eta Ivan Rybakov (tarteko helmugetan lehena) igo ziren.

MENDIKO 21. KRITERIUMA | 108 TXIRRINDULARIK PARTE HARTU ZUTEN IBILBIDE MENDITSUKO 124 KILOMETROKO PROBAN

Joseba Agirrezabalak indartsuena eta zuhurrena izanda irabazi zuen

Azkeneko igoeran ihes eginda zeudenak harrapatu zituen eta Victor Garcia atzean laga zuen

Bidelaneko Lander Aperribai irabazteko zorian egon zen, baina bikote indartsua etorri zitzaion

Jon Unamuno

Andalucia Paul-Versan talde kontinentaleko txirrindularia lehena eta Estatuko txapelduna bigarrena; horrek erakusten du Elgetako lasterketak izan zuen maila. Areitio igotzeaz gain, Asentzio birritan (Angiozartik behin eta

Elorriotik bestean) eta Elgetako igoerak izan zituzten txirrindulariek ibilbidean.

Asentzioko bigarren igoera arte ihesaldi saiakera batzuk egon ziren, baina ez zuten behar adinako abantailarik lortu. Bigarren igoera horretan laukote arriskutsu batek aurrera jo zuen: Victor Garcia, Josu Agirre,

Miguel Ochoa eta Ivan Rybakov. Egoeraz jabetuta, Azysa taldeko David Perezek gogor tiratu zuen zioan hamarrekotik. Tartean zioan bere taldekidea Mikel Elgezabal, irabazteko faborito nagusienetariko bat. Lan bikaina egin zuen David Perezek eta Ola Tailerren parean laukotea harrapatu zuen. Hurrengo ihesaldia segituan sortu zen. Oraingo honetan Lander Aperribaik eta Oier Rotetak jo zuten aurrera. Atzean geldiunea egon zen eta azkar lortu zuten abantaila polita.

600 METRO FALTAN

Ubera auzoan 25 segundoko abantaila zuen bikoteak. Indartsuena Lander Aperribai zen; izan ere, Elgetara igotzen hasi eta berehala Caja Ruraleko Oier Roteta atzean laga zuen. Atzekoek bazekiten irabazteko hasieratik indartsu

igotzen hasi behar zirela eta hala izan zen. Joseba Agirrezabalak zuhur jokatu zuen, lasterketan beste taldeek egiten zuten lanaz baliatu zen eta. Horrela, indartsuena bera zen eta aurrera jo zuen

Areitio igotzeaz gain, Asentzio birritan eta Elgeta igo zituzten proban

Agirrezabala izan zen azken igoerako indartsuena eta atzean laga zituen beste denak

Landerren bila. Bere taldean profesionaletan aritzeko aukerarik ez diote ematen anoetarrari eta garaipenarekin bere balioa erakutsi nahi zuen. Victor Garcia eta Mikel Elgezabal (Paternina Costa Almerian ibilitakoa) gertuan izan zituen, baina Joseba izan zen indartsuena. Hala ere, Lander Aperribai harrapatzea ez zen erraza izan. 600 metro falta zirela harrapatu zuen Josebak. Azkar laga zuen atzean, anoetarraren pedalkada indartsua zen eta.

Lur jota heldu ziren txirrindulariak helmugara eta hori da sariaren xarma: igoerek ematen dioten gogortasuna. Lasterketa bukatzeak izugarriko meritua du eta horregatik TKV-Aldekoa-Lizarralde taldeko Kepa Varela eta Unai Arantzabal ezin ditugu ahaztu: 42. eta 48. izan ziren bi txirrindulariak.

EUSKALDUN MAILAKO TXIRRINDULARITZA PROBA



Irteera urduria. Lasterketa aldapa gora hasten zen. Hori dela eta, kontzentrazio aurpegiak ikusten ziren hasieratik eta bromarako denbora gutxi izan zuten txirrindulariek.



Asentzioko lehen igoera. Bidelan-Kirolgi taldeko txirrindulariek lasterketa gogortzeko asmoarekin abiadura handiko erritmoa ezarri zuten Asentziarako lehen igoeran.

Emaitzak

LEHENENGOAK

1. Joseba Agirrezabala (3:19:10)
2. Victor Garcia (3:19:15)
3. Lander Aperribai (3:19:52)
4. Mikel Elgezabal (3:19:52)
5. Josu Agirre (3:20:00)
6. Ametz Txurruka (3:20:00)
7. Antonio Cosme (3:20:04)
8. Mikel Nieve (3:20:04)
9. Ivan Rybakov (3:20:09)
10. Julen Goikoetxea (3:20:14)
11. Denis Kudashev (3:20:26)
12. Oier Roteta (3:20:46)
13. Jon Azkoitia (3:20:46)
14. Miguel Ochoa (3:20:52)
15. Ugaitz Artola (3:21:02)
16. David Sojo (3:21:18)
17. Noel Mega (3:21:28)
18. Igor Romero (3:21:34)
19. David Perez (3:24:14)
20. Eugeni Zhadkevich (3:25:05)
21. Roberto Barrientos (3:25:14)
22. Hernan Ponce (3:25:15)
23. Luis Macias (3:25:15)
24. Eriz Ruiz de Erentxun (3:25:34)
25. Nestor Bielsa (3:26:16)
26. Igor Garate (3:26:21)

LEHENENGO DEBAGOIENDARRAK

42. Kepa Varela (3:31:26)
48. Unai Arantzabal (3:33:42)



Joseba Agirrezabala txapeldun. Lasterketan ondo gorde zituen indarrak eta azken igoeran inork ezin izan zion jarraitu anoetarrari. Garaipenarekin profesionaletarako pausoa aldarrikatu zuen.



Ihesaldirik arriskutsuena. Victor Garcia, Ivan Rybakov, Josu Agirre eta Miguel Ochoa osatu zuten lasterketako ihesaldirik aipagarriena. Lau gizon indartsu ziren eta David Perezek atzetik egin zuen lanagatik ez balitz, Elgetara heltzeko aukera handiak izango zituzten lau txirrindulariek.

• LASTERKETAKO PROTAGONISTAK



JOSEBA AGIRREZABALA |
ANOETA

“Sariak duen izenak esaten du lasterketaren zailtasun maila. Bakarrik nengoela eta, odol hotza izan dut eta besteen lana aprobetxatu dut”.



VICTOR GARCIA |
MIRANDA

“Lasterketa oso urduria izan da hasieratik. Taldeak sortu dira, baina ez dute denbora askorik lortu. Amaieran indarrak falta izan zaizkit Josebari jarraitzeko”.



KEPA VARELA |
BERGARA

“Lasterketa bukatu dut eta oso pozik nago. Aurreko denboraldiarekin alderatuz, oso ondo nabil aurtengoan. Garapen ona izan dut”.



MIKEL ELGEZABAL |
GERNIKA

“Irabazteko asmoarekin etorri naiz, baina Joseba eta Victor indartsuago zeuden. Profesionaletatik jaitsi ostean, ekainetik hona bost garaipen lortu ditut”.



XABIER AROSTEGI |
GETXO

“Indarrak poliki-poliki agortzen joan zaizkit eta helmugara ez nintzela helduko uste nuen”, esan zuen “El pollo” deitzen dioten txirrindulari bizkaitarrak.

FUTBOL 8 | KOADRILEN ARTEKO FUTBOL 8 TXAPELKETA

Sanan United arrasatearrak garaile koadrilen arteko txapelketan

15 taldek parte hartu zuten Kilometroak 05ek eta Aretxabaletako Gazte Ekimenak antolatutako txapelketan

Jokin Etxebarria

Lehenengo aldiz antolatu da Debagoienean gure ibarreko herrietako koadrilen arteko txapelketa, eta arrakastaz beterikoa izan da. 15 taldek parte hartu zuten Kilometroak 05ek eta Aretxabaletako Gazte Ekimenak antolatutako txapelketan. Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Oñatiko 170 pertsona inguru ibili ziren futboleko jokatzeko Iba-

rra futbol zelaian, goizeko 10etik arratsaldeko 7ak bitartean.

Bazkaltzeko betarik ere izan zuten. Parte-hartzaile guztiendako bazkaria egin zuten Aretxabaletako Kirol Etxean. Ondo etorri zen goizean galdutako indarrak berreskuratzeko eta finaleira iristeko lehian sartzeko ahalgintetan indar pixka bat edukitzeko. Goizean, hiru taldetan banaturik, 20 minutuko partiduak jokatu zituzten. Oso gogo-

rra izan zen, zapatuan sekulako beroa egin zuen eta. Hori guztia ikusita, antolatzaileek arratsaldeko partiduak 15 minutukoak izatea erabaki zuten.


BI TALDE ARRASATEAR

Arratsaldeko 7ak bueltan heldu zen finala jokatzeko ordua. Bertara, bi talde arrasatear sailkatu ziren: Dribling eta Sanan United. Partidua oso berdindua izan zen. 10 minutuko bi zati jokatu

zituzten. Lehenengoan gola sartzeko hainbat aukera izan zituzten bi taldeek. Baina gola Sanan Unitedek sartu zuen bigarren zatian, eta gol horren bitartez txapelketa irabazi zuten. Sanan Unitedek, gainera, Debako talasoterapia zentroan zirkuitu bat egiteko aukera izango dute. Baina bigarrenak ere ez ziren saririk gabe gelditu; bildots bat eraman zuten. Afari eder bat egin ahal izango dute behintzat.



15 talde ibili ziren Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian nor baino nor.



Sanan United taldekoak, txapelketa irabazita, umeak bezala plisti-plasta.

• HONELA IKUSI ZUTEN PARTE-HARTZAILEEK



SANAN UNITED |
ARRASATE

“Oso gustura ibili gara jokoan. Nahiz eta lehen aldia izan, txapelketa ederki antolatuta egon da. Hurrengo urtean berriz antolatu beharko lukete txapelketa hau, oso polita da eta hainbat herritako jendea horrelako ekitaldietan elkartzea. Datorren urtean berriz antolatzen badute, ziur izan berriz parte hartuko dugula; izan ere, talde txapelkunak ezin du hutsik egin hurrengo edizioetan”.



ROBERTO ETA GORKA |
ARETXABALETA

“Gaurkoa, jai bat baino gehiago futbol txapelketa soil bat izan da, baina oso ondo pasa dugu bertan. Gainera, zortea izan dugu eta finala jokatzera heldu gara, baina azkenean, justu-justu izan bada ere, ezin izan dugu irabazi. Datorren urtean berriz parte hartuko dugu, ea orduan irabazten dugun”.



UNAI ETA ADRIAN |
ARETXABALETA

“Oso esperientzia polita izan da, gainera, azkenean hirugarren bukatu dugu. Lehenengo aldiz antolatzeko nahiko ongi irten da, eta hurrengo urtean ere horrela izatea espero dugu. Hori bai, ea parte-hartzaile gehiago izaten diren. Guk jendea animatu nahi dugu”.

IPINTZAKO TXAPELKETA | LIGA ETA KOPAKO FINALAK JOKATU ZIREN EGUBAKOITZEAN ETA PARTIDU HORIEKIN BUKATU DA TXAPELKETA

Fo Fo Fo eta A Ze Flaxa Galways liga eta kopako txapeldunak

Ligako finalean, Fo Fo Fo taldeak bi goleko desabantailari buelta emanda, 3-2 irabazi zuen

Kopan, A Ze Flaxa Galways taldeak penaltiz sartu zuen garaipena lortzeko gola; emaitza justua, beraz

Jon Unamuno

Gizonezkoen ligako eta kopako finalek eman zioten bukaera Ipintzako txapelketari egubakoitzean.

Lehenik eta behin kopako finala jokatu zuten A Ze Flaxa Galways eta Santana River taldeek. Hasiera batean lehenak ziren faboritoak, baina Santana Riverreko gazteek uste baino erresistentzia gehiago ipini zuten. Lehen zatian sartu zuten partiduko gol bakarra. Penalti argi bat egon zen Santanakoen arean eta Unai Agirrek ez zuen barkatu bederatz metrotatik. Gol auke-

ra gehiago izan zituzten Unairen, Eliasen eta Igorren jaurtiketa eta burukadei esker, baina markagailua ez zen gehiago mugitu. Bandera piratarekin zeuden Santana Riverreko zaleen animoengatik edo, bigarren zatian gehiago estutu zuten gazteek. Barrutiabengoak, Santamariak eta Maraurik aukera politak izan zituzten, baina ezin izan zuten sarea zulatu. Hala ere, orokorrean, emaitza justua izan zen.

ELGETARRAK NAGUSI

Elgetara eraman zuten Fo Fo Fo taldekoek ligako garaikurra. Tito's Getokuak hasi zen ira-



JON UNAMUNO

2003ko garaipena gogora ekartzen zuen kamisetarekin jokatu zuten taldeko batzuek; berritzeko aukera dute orain.



JON UNAMUNO

A Ze Flaxa Galways taldeak, lehen zatian gehienbat, aukera oso onak izan zituen abantaila handitzeko.

Gol bakarra penaltiz sartuta, A Ze Flaxa Galways taldea izan zen kopako txapelduna

Fo Fo Fo taldeak, huts eta bi galtzen hasi arren, hiru gol sartu eta irabaztea lortu zuen

bazten; izan ere, 20. minuturako bi gol sartu zituzten Herran eta Ibaibarruagaren bitartez. Hala ere, aukerak elgetarrek sortzen zituzten. Iratze min handia egiten zuen ezkerrean eta Erosarbe anaien jaurtiketek Berrondo atezaina behin baino gehiagotan larritu zuten, baina ondo

erantzuten zuen honek. Hala ere, lehen zatia bukatu aurretik, Juaristik Fo Fo Fo taldearen lehen gola sartu zuen. Hurrengo jokaldian penaltia ere egon zen Tito's Getokuaken arean, baina epaileak ez zuen ezer adierazi.

Bigarren zatia aukera gutxiarekin hasi zen. Bazirudien lehen zatian indar gehienak agortu zituztela bi taldeek. Epaileak apurtu zuen baretasuna. Lehen zatiko penaltia baino jokaldi nahasiago batean adierazi zuen Fo Fo Fo taldearen alde penaltia. Koldok ondo jaurti zuen eta bina-koa ezarri zuen markagailuan tal-

dearen eta zaleen gozamererako. Azken hauek bengala batekin ospatu zuten bigarren gola. Oraindik ez zegoen dena erabakita. Partidua amaitzeko 10 minutu falta zirela, Ormaetxeak elgetarren hirugarren gola sartu zuen. Bergarrek ezin izan zuten aukerarik sortu eta halaxe bukatu zen finala.

Garaikurrak ematerako orduan, merezitako omenaldia jaso zuen txapelketa honen eragilerik nagusienak: Jose Luis Beitiak, hain justu ere. Bertaratutakoek txalo zaparrada handia eskaini zioten.

• FINALETAKO PROTAGONISTAK



ANDER, JON, MIKEL LOIDI ETA MIKEL LETURIA | SANTANA RIVER

"Ligan gogo handiarekin eta ondo jokatu genuen eta kopan finalera heltzearekin oso pozik gaude. Gainera denak kuadrilakoak gara. Dugun egoera fisikoa hobea izango balitz...", esan zuten.



MIGUEL ANGEL ETA UNAI | TITO'S GETOKUAK

"Ez genuen ligako finalera helduko ginenik espero eta nahikoa egin dugu. Bigarren zatian oso nekatuta geunden, eta gainera, penalti bidegabeez adierazi digute".

Txapeldunak mailaz maila

GIZONEZKOAK LIGA

1. Fo Fo Fo

EMAKUMEZKOAK SENIOR

1. Ogizun

2. Potzu Ta Zapaburuak

GIZONEZKOAK KOPA

1. A Ze Flaxa Galways

3. Ou Pitxu Ou!

4. Pentols team

BETERANOAK

1. Betikuak

EMAKUMEZKOAK KADETEAK

1. A Ze Flaxa Galways

BETERANOAK (38 URTETIK GORA)

1. Ezin leike

EMAKUMEZKOAK KIMUAK

1. Txikipung



UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA




Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/udakoargazkiak



HONDARREZKO GAZTELUAK. 2001eko uda Nojan igaro zuen lagun talde honek. Kuboa, pala eta eskuarea hartu eta sekulako gazteluak egin zituzten hondarretan. /Argazkia: Ruben Cuesta /Bergara



EDERTASUNA BERTAN. Askotan kanpora, beste herrialde batzuetara joaten gara edertasun bila inguruan daukagunari erreparatu gabe. Trekun ateratakoa da argazkia, iazko udan. /Argazkia: Iker Iglesias /Aretxabaleta



ARAOZKO URAK. Iazko udan ateratako argazki honetan Araotz errearen zatia ikus daiteke. Ura, hondoan dauden belarrak eta zuhaitzen isla ageri dira. /Argazkia: Ibon Osa /Bergara



KONTUZ, BADATOR AHT. Izenburu hori jarri dio Gesalibarko argazkilariak aurreko astean atera zuen argazkian. Harra ikusi eta Abiadura Handiko Trena etorri zitzaion burura. Zergatik ote? /Argazkia: Asier Zabarte /Arrasate

Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Debagoieneko edozeinek parte har dezake.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.

- Nahi beste argazki bidali ahal izango dira.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapen txiki bat.
- Astero argitaratuko dira *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 3ko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.

Sariak:

- 1. saria: Olympus E-300 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 2. saria:** bi gaueko/hiru eguneko egonaldia Kantabria edo Asturiasen Eroski Bidaiek agentziaren eskutik.
- 3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- SARI BEREZIA:** parte hartzaile guztien artean zozketatuko den sari sorpresa.



Babeslea:


gizarte ekintza

Laguntzaileak:

GURE AMETSA
JATETXEA

EROSKI/bidaiek
mereri duzu

Mobilario
ARENAZA
ALTZARIAK • DISEINUA

kiñu
argazkilariak

Uztailaren 18a: 053 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, uztailak 18, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).


- Aritz Ugarte Lizarraga (Bergara)
- Trini Galdos Urzelai (Oñati)

ISTILU etxeko kamiseta bat.

- Iñigo Biain (Oñati)

Uztailak 18ko sariak

- Sei gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).



TUNISIARA BIDAIA ZORAGARRIA!

Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu irailean, ASTELEHENKO GOIENKARIAren harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzailea: **VIAJES IBERIA**

Futbola

• MONDRAKO BATZAR OROKORRA

Bazkide gehiagoren beharrea dago Mondra zuzendaritza batzorde berriaren iritziz

113.000 euroko aurrekontuarekin, Mondra igoera postuetatik gertu ikustea da preferente mailako taldearentzat helburu nagusia

Jokin Etxebarria

Eguenean egin zuen Jose Luis Ezkurak Mondraren presidentea gisa azken batzarra. 16 urte eta gero, Jose Luis Azkaratek hartu du haren lekua.

Lana ondo egin izanaren ustearekin eta klubak zituen zor guztiak kitatuta utzi du Mondra Ezkurak. Hala ere, kargua utzi aurretik, urteko balantzea egin zuen.

Kirol mailari dagokionez, nesken taldea zoriondu nahi izan zuten, egindako denboraldia uste baino hobea izan zelako. Espe-rotakoen artean preferente mailako taldea eta infantiletako taldeak egon ziren. Eta espero bai-

no kaxkarrago ibili zirenak lehen mailako gazteak eta ohorezko kadeteak –mailaz jaitzi ziren eta– eta baita ohorezko gazteak ere.

Ekonomia arloari dagokionez, urte hasieran helburu zutena lortu dute: kluba zorrik gabe uztea. 2.600 euroko superabitarekin utzi dute kluba.

Balantzearekin bukatutakoa, zuzendaritza batzorde berria aurkeztu zen, eta euren buru Jose Luis Azkarate presidentea. Mondraren etorkizuna gaizki ikusten zutelako aurkeztu zirela azaldu ondoren, hurrengo urterako zein helburu duten azaltzen hasi ziren.

BAZKIDE GEHIAGO

Lehenik eta behin, kirol helburuekin hasi ziren. Joan den urtekoaren antzeko helburuak dituzte aurten ere. Preferenten, entrenatzaile berria izango dute: Igor Gordobil, eta honekin batera lau aurpegi berri, oraingoz: Ekain Garin –berriz ere Mondrara bueltatuko dena– Zubikarai eta Alzola Bergararik eta Gotzon Elgoibartik. Joan den urteko jokalaririk gehienek jarraituko dute, eta asmoa igoera postuetatik gertu ibiltzea da. Bestelako mailetan, joan den urtean bezala, edo ahal baldin bada hobetoxeago ibiltzea da helburua. Bestalde, infantiletan ere



Jose Luis Ezkurak egunean eman zion lekukoa ofizialki Jose Luis Azkarate presidente berriari.

beste talde bat ateratzeko asmoa dute; Infantil F-8n, hain zuzen ere. Izan ere, joan den urtean haur askotxo gelditu ei ziren futboleant jokatu ezinda.

Honetarako guztirako, 113.000 euroko aurrekontua izango du aurten Mondrak. Hala ere, zuzendaritza berriak proposatu duen helbururik handienetako bat bazkide gehiago lortzea da. Azken urteetan Mondrak 260 bazkide izan ditu soilik, eta zuzendaritzakoek argi dute kopuru horrekin kluba ez doala inora. Horregatik, hil bukaera aldera bazkideak bilatzeko kanpaina batekin hasiko dira.

Helburuak• **IGOERAKO POSTUAK**

Kirol arloan, preferente mailako taldearekin, zuzendaritza batzorde berriak joan den urteko helburu berbera jarri du: gutxienez, igoerako postuetan egotea, edo haueetatik gertu behintzat.

• **INFANTIL F-8**

Joan den urtean haur asko futboleant jokatu ezinda gelditu zirela ikusita, aurtengoan beste talde bat ateratzea dute

helburuetako bat. Talde berri hau Infantil F-8 koa izango da.

• **BAZKIDE GEHIAGO**

Mondrak oso bazkide gutxi izan ditu azken urteetan, 260 inguru. Kontuan hartuta inguruko taldeek 600 bazkide inguru dituztela, batzorde berriak bazkide bila irteteko asmoa azaldu du. Hau lortzeko hainbat iragarki egingo ditu eta web orri bat ere zabalduko dute hil bukaerarako.

Nesken taldea zoriondu nahi izan dute egindako denboraldiagatik

Kluba zorrik gabe uztea lortu du Mondrako zuzendaritza batzorde ohiak

Herri-kirolak

Aimar Irigoienek Saralegiren marka hautsi zuen 22 kilorekin

Jasone Zabala

Asteburuan, Antzuolan eta Arrasateko Santa Marina auzoan herri-kirolak izan ditugu.

Zapatuan, Arrasaten, aizkolariak izan genituen, eta nor baino nor aritu ziren Mugertza II.a eta Mugertza III.a. Biak mutrikuarrak eta anaiak dira, eta biak Euskadiko gazte mailako txapeldun izandakoak. Erakustaldi bat egin zuten, 8 kana erdiko enborrekin. Hiru lan ezberdin egin zituzten enborrekin: lehe-

nengo, ea nork moztu aizkora-kada gutxienekin enbor bat. Lan horretan, Mugertza II.a izan zen azkarrena, 43 kolpe jo ondoren moztu zuen enborra eta. Bigarren proban, bi gazteen abilezia ikusi zen; enborra nork lehenago moztu zen erronka, eta Mugertza II.a izan zen bietan azkarrena. Eta azken proban, bakoitzak bi enbor moztu behar izan zituen, eta hemen lana antzera amaitu zuten.

Bestalde, Antzuolako jaien barruan ere, herri-kirolak izan

genituen atzo herriko plazan; harri-jasotzaileak hain zuzen ere. Alde batetik, Aimar Irigoien 19 urteko erretildar gaztea, eta bestetik, Mainer Urkiola 16 urteko Bolibarko neska.

GAZTEAK MARKAK HAUTSIZ

Biek lan txukuna egin zuten eta hainbat harrarekin egin zuten erakustaldia. Lehenengo, Aimarrek 100 kiloko harriari 10 jasoaldi egin zizkion eta Mainerrek 88 kilokoarekin 6 jasoaldi egin zituen. Ondoren, Aimarrek, 227 kiloko harriarekin eta Mieltxo Saralegiren marka hautsiz, 2 jasoaldi egin zituen, eta Mirenek berdina egin zuen 75 kilokoarekin. Amaitzeko, Aimarrek 140 kiloko esku bakarrarekin bi aldiz altxatu zuen, eta Mirenek harri biritu 2 minututan 15 aldiz.



Jendeak ederki gozatu zuen gazteek erakutsitako lanarekin.

JASONE ZABALA

• PROFESIONALAK

Eugi eta Elkoro ondo hasi ziren, baina Xalاک eta Galartzak buelta eman zioten partiduari

Partidu hasieran Eugik agindu baldin bazuen ere, bigarren zatian Xalاک ondo aritu zen aurreko aldean

EUGI-EKORO

20-22

XALAK- GALARTZA VI

Iraupena: Ordu eta hamar minutu.

Tanteoa: 2-6, 3-6, 6-8, 6-9, 6-11, 7-12, 8-15, 9-15, 11-15, 11-17, 12-18, 13-18, 15-18, 16-18, 17-18, 19-18, 19-19, 19-20, 20-20, 21-20, 22-20.

Jasone Zabala

Partidu polita ikusi genuen atzokoan Antzuolako Udal Pilotalekuan. Hasierako tantoetatik aurreko koadroetan izan zen jokoa. Eugi eta Elkoro gorritz, partidu guztian joan ziren aurretik, baina Xalاک eta Galartza VI. ak urdinez, ez zieten markagailuan alde egiten utzi.

Patxik lehen tanto bikainak egin zituen, eta Elkoro ederki laguntzen zion atzeko aldean. Pilotak ederki moztzen zituen eta Xalاک ezin zen heldu pilotak eramatera. Hasieratik 4 tantoko alde atera zuten gorriek, baina jokoa ez zen nabari alde hori. Urdinek, Eugiren hasierako nagusitasuna ikusirik, Aitor Elkorori lan ugari eman zioten atzeko koadroetan, baina atzela-



AINZANE AGIRRE

Lau pilotariak ikuskizun bikaina eskaini zuten atzo, eta joko azkarra eta bizia erakutsi zuten

ri elgetarrak ederki eutsi zien urdinek bidalitako pilotei, eta Aoizkoa erremate bikainekin tantoei behin eta berriz amaiera bikaina ematen ari zen. Xalاک,

tarteka, Eugi helduko ez zen dekada polit askoak egin zituen. Lau pilotariak, bertara hurbildutakoen gozamenerako, partidu polita jokatzen ari ziren. Eugi hasi

zen partiduan agintzen, eta markagailuko alde gero eta handiagoa zen, joko ikusgarri arekin, gainera. 15 eta 8 galtzen ari ziren Xalاک eta Galartza. Momentu hone-

tatik aurrera, Xalاک tanto bakoitza luzatzen hasi zen, eta joko dena Elkoro atzelariarengana eramane zuten. Orduan Eugi jokoa sartu ezinik zebilen, eta urdinak hasi ziren momentu honetan markagailuan hurbiltzen.

Eugik tanto pare batean ederki gozatu zuen pilota, eta erreboteraino bidali zuen

Pilotalekua guztiz bete ez zen arren, giro polita izan genuen atzo Antzuolan

Bertara hurbildu zen artekariak lan gutxi izan zuen, jendeak ez zuen apusturako gogorik

PARTZIAL BIKAINA

12-18tik 19 eta 18raino egin zuten urdinek, 7 tanto jarraian. Handik aurrera, Urdinak izan ziren nagusi, eta azken txanpara arte emozioa egon zen arren, 22 eta 20 Xalاک eta Galartzaren alde.

Lehenengo jokatu zen partiduan, Auxkin eta Larralde izan ziren nagusi

Partidu nagusiaren aurretik, beste partidu bat izan zen: Berraondo eta Arroyok, gorritz; Larralde eta Auxkin, urdinez. Bigarren irabazi zuten, 22 eta 20ko emaitzaz.

Partidu hasiera ona izan zuten Larraldek eta Auxkinek. Hasieratik ez ziren oso fin ibili batez ere aurrelariak, eta tantoak alde batera zein bestera joan ziren. Berraondo etxean jokatzen ari zen eta, urdurasunagatik agian, pilota errazak huts egin zituen aurreko aldean. Urdinek ezer egin gabe poliki-poliki tantoak egiten ari ziren. Larralde gazteari ere urduritasuna nabaritu zitzaion hasierako tantoetan, baina jokoa sartzen hasi zen eta dejada politak egin zituen. 12na berdindu zuten eta, bigarren zati honetatik aurrera, Berraondo asmatzen hasi

zen. Auxkin ere orduan hasi zen atzeko koadroetan hutsak egiten. Guztira, partiduan zehar, 5 berdinketa izan ziren. Berraondo asmatzen hasi zenean jarri ziren lehengoz aurretik, 12 eta 13 an; hemendik aurrera, 20. tantora arte, berdinketa bat bestearen atzetik etorri zen.

16 eta 19 aurreratu ziren Berraondo eta Arroyo, baina Larraldek eta Auxkinek erreakzionatu egin zuten eta 20na berdindu. 4 tanto jarraian egin zizkien Larraldek eta Auxkinek eta gorriak urduri jarri ziren.

Azkenean, partidu emozioz bete zen. Urdinek ez zieten eman aukerarik gorriari eta falta ziren azkeneko bi tantoak ondo amaitu ondoren garaipena eskuratu zuten.



Txirrindularitza

• XIV. SANTAMARINA SARIA

Sumofic taldeak lasterketa bikaina egin ostean, Gurutz Larreak lortu zuen garaipena

Sumofic taldeak, etxean ari zirela eta, hasieratik jo eta su jardun zuen; horrela, ihesaldi nagusian Penabad, Antxon eta Nafarrete sartu ziren eta Larreak garaipena lortu zuen

Jon Unamuno

Lasterketa polita ikusi genuen zapatuan Bergaran. Sumofic taldea izan zen protagonista nagusia. Bosgarren kilometroan zortziko ihesaldi bat antolatatu zen eta tartean sartu ziren Asier Penabad, Antxon Anduaga eta Ander Nafarrete. Osintxutik Eskoriatzaraino joan behar izan zuten txirrindulariek eta aurrekoen abantaila handituz joan zen (bost minutu). Ordurako, zortzikotea seikote bihurtua zegoen, baina Sumoficeko hiru txirrindulariak tinko mantendu ziren aurrean. Bergarara bueltan, Aretxabaletan abantailarik handiena lortu zuten aurrekoek: 5:43. Bazirudien tropel nagusian zeuden txirrindulariek ezer gutxi zutela egiteko, baina gauzak ez ziren horrela gelditu.

Aurrean txirrindularirik ez zutela eta, Bruesa taldeak gogor tiratu zuen eta abantaila gutxitzen hasi zen. Berritxo ere Osintxuraino joan ziren eta ondoren Udanarantz jo zuten. Aurrekoak geroz eta gertuago zeudela, eta tropelean txirrindulariak mugitzen hasi ziren. Laxy Colchon taldeko Beñat Urainek jo zuen aurrera lehengo. Sumofic taldeko Joseba Itziar eta Graficas Otzarretako

Urko Eizagirre ere aurrekoak harrapatzen saiatu ziren. Udana igotzen hasi zirenean minutu bateko atzerapena zuen Urainek eta bi minutukoa Itziarrek, Eizagirrek eta atzetik indartsu etorritako Larreak eta Lavin bizkaitarrak. Udana gainean seikotea laukote bihurtuta pasatu zen. Antxon Anduaga izan zen atzean gelditutako bat. Atzetik, Larrea, Lavin eta Urain gero eta gertuago zeuden.

Deskarga izan zen hurrengo puntu beroa. Aurreko laukotetik Andoaingo Jokin Iartzak metro batzuk hartu zituen, baina ez ziren nahikoa izan. Antzuolan laurak elkartu ziren berritxo. Larrea eta Urainek aurrekoak gero eta gertuago zituzten. Horrela, Antzuolan 40 segundoko abantaila zuten aurrekoek, baina kilometroak pasa ahala, abantaila gutxitzen

Zortziko ihesaldian Ander Nafarrete Antxon Anduaga eta Asier Penabad sartu ziren



JON UNAMUNO

Atzetik aurrerako lasterketa egin zuen Gurutzek eta azkenean lehengo pasa zen helmugatik antzuolarra.

Gurutz indartsu zegoen eta hala erakutsi zuen, azken bi Km-etan indartsuena izanez

joan zen. Saihesbide berria izan zen gakoa eta Gurutzek hala adierazi zuen: "Saihesbideko aldapan gertu ikusi ditugu eta bagenekien harrapatzeko aukera genuela". Oxigenoseko biribilgunean 15 segundo zituzten aurrekoek, Bergarako semaforo nagusietan 10 segundo eta azkenean gertatu beharrekoa gertatu zen.

BI KILOMETRO FALTAN
Bi Km faltan elkartu ziren seirak. Gurutz indartsu zegoen eta hala erakutsi zuen. Azken 500 metroetan Jokin Iartzarekin jo zuen aurrera eta esprintean irabazi zuen. Ander Nafarrete laugarren izan zen eta Asier Penabadek, seigarren izateaz gain, mendiko saria ere irabazi zuen.

Boccia

• XIII. SANTA MARINA BOCCIA TXAPELKETA

JOSEBA AGIRIANO TXAPELDUN BOCCIA TXAPELKETA

Urtero bezala, Bergarako Santa Marinako jaien barruan boccia txapelketa antolatatu dute auzokideen artean. Boccia petankaren antzeko joko bat da, baina pilota bigunekin jokatzen dena. Sei aukera izaten dira pilota zuritik zure pilotak ahalik eta gertuen uzteko. Aurtengo txapelketan 16 pertsonak parte hartu zuten, eta guztietan habilena Joseba Agiriano izan zen, finalean Sansiri irabazi eta gero.

Bestalde, aipatu, hauek ez zirela izan jaien barruan kirola egin zuten bakarrak. Izan ere, erretiratuek ere izan zituzten hainbat txapelketa: boloak, billarra, tutea, musa...



JOKIN ETXEBARRIA

Atletismoa

Remi Diosdadok bere marka hobetu zuen 100 metroan Gipuzkoarekin

A.G.

Asteburuan jokatu dute Euskadiko herrialdeen arteko txapelketa Gasteizen. Hiru arrasatearrek hartu dute parte Gipuzkoako Selekzioarekin: Jonathan Perez eta Lander Errastik pertika-jauzian eta Remi Diosdadok 100 metroan eta baita 4x100 errelebu lasterketan.

Remi Diosdado ibili zen hirurretan hoberen. Arrasatearrak bere marka hobetu zuen 100 metroan Gipuzkoako selekzioarekin parte hartzen zuen lehen

aldian, marka pertsonal berria 11'30 segundotan utziz.

PERTIKAN ZORTERIK EZ

Jonathan Perez eta Lander Errasti pertika-jauzilari arrasatearrek ere parte hartu zuten Gasteizen. Baina Mendizorrotzako pista ez da pertika-jauzilariendako pista oso egokia. Haizeak oso gogor jo zuen, eta arrasatearrek ezin izan zituzten euren helburuak lortu. Jonathan Perezek 4'70 salto egin zuen bakarrak eta Lander Errastik 3'80 metrokoaz konformatu behar izan zuen.

Ane Herrero Arrasateko gaztea duela urte eta erdi hasi zen eskubaloian jokatzeko, baina dagoeneko, Euskal selekzioarekin jokatzeko jardun du. Ez hori bakarrik,

Asturiasen jokatuak txapelketa batean, jokalariren onenaren eta goleatzaile nagusiaren sariak eman dizkiote. Arrasaten bere adineko talderik ez zuen aurkitu eta

Aloña Mendin dabil jokatzeko. Eskubaloian mundua txikitatik ezagutu izan du etxean, baina hala ere, kirol honetan oraindik idolorik ez duela aurkitu jakinarazi digu.

ANE HERRERO | VERKOL ALOÑAKO ETA EUSKAL SELEKZIOKO ESKUBALOI JOKALARIA

“Horrenbeste jokalariren artean ni onena izendatzea pozik egoteko modukoa da”

Jokin Etxebarria

Noiz hasi zinen eskubaloian jokatzeko eta zergatik?

Duela urte eta erdi hasi nintzen jokatzeko gutxi gorabehera. Familian betidanik ezagutu eta praktikatu da kirol hau. Ni oso gustura ibiltzen naiz, eta horregatik jarraitzen dut jokatzeko. Hala ere, hasieran futboleko jokatzeko nuen, baina azkenean, eskubaloian zentratu naiz, eta ez naiz damutzen.

Arrasaten eskubaloian ibili zara, baina aurretik Verkol Aloña jokatu duzu. Zergatik aldaketa hori?

Arrasaten jokatzeko nentzela ni baino nagusiagoak ziren jokalariekin jokatzeko nuen. Izan ere, gazte mailako taldea atera ahal izan dute bakarrik aurretik, eta nire adineko gertueneko taldea Oñatin zegoen, eta bertara joatea erabaki nuen. Infantil mailan jokatu dut aurretik eta datorenean kadeteetan jokatu dut. Ezberdintasunak nabaritzen zirela, ezta?

Bai, beti ere zure adineko jendearekin jokatzeko hobea izaten da. Gainera, Arrasaten gauza bitxi bat gertatzen zen. Bertako jokalariek hasi berriak ziren kirol honetan, eta normala den bezala maila nahiko baxua zuten. Oñatin aldiz, txiki-txikitatik eskubaloian jokatuak dira, eta hori asko nabaritzen da.

Verkol Aloñaekin denboraldi nahiko ona egin duzue.

Bai, ezin gaitzeko kezatu. Oso pozik bukatu dugu. Ligan lehenak bukatu genuen eta erakutsitako joko maila oso altua izan zen. Horrez gain, kopan ere finalera iritsi ginen, eta irabaztea lor-

tu ez arren, oso gustura ibili ginen.

Pena horrekin gelditu ginen. Behin finaleraino iritsita, ezin irabazi izana. Baina horrek ez du kentzen sekulako denboraldia egin izana.

Noiz deitu zizuten Euskal Selektioarekin jokatzeko, eta zer sentitu zenuen une horretan?

Izugarrizko poza sentitu nuen. Klub batean jokatzeko polita da, baina Euskadi ordezkatzeko ikaragarria da.

Azaro aldera deitu zidaten lehen aldiz eurekin jokatzeko joateko. Txapelketa batean hartu genuen parte, eta hortik aurrera, hilero entrenamendu bat egiten dugu. Joan den astean, Asturiasen egon ginen beste txapelketa bat jokatzeko.

Gainera, bertan jokalariren onenaren eta goleatzaile onenaren sariak eman dizkizuten, ezta?

Bai, txapelketa ezin izan genuen irabazi, baina ni oso pozik bueltatu nintzen Asturiasetik. Maila handiko horrenbeste jokalariren artean ni izendatzea jokalariren onena izendatzea modukoa da.

Zein ezberdintasun ikusten duzu klub batean edo selekzioan jokatzeko orduan?

“Familian betidanik ezagutu eta praktikatu da kirol hau eta ni oso gustura ibiltzen naiz jokatzeko”



JOKIN ETXEBARRIA

Ane Herrero Euskal selekzioarekin jokalariren onenaren eta goleatzaile onenaren sariak irabazi ditu Asturiasen.

Agian, selekzioan indibidualki gehiago jokatzeko da klubean baino. Klubean taldeko jokoak du garrantzia, eta selekzioan ez. Errazago nabarmen zara, baina jokatzeko zailagoa izaten da.

Datorren denboraldirako zer asmo?

Printzipioz, Oñatin jokatzeko jarraitzea, eta kirol hau egiten disfrutatzen jarraitzea, besterik ez. **Etorkizunean pentsatu duzu?**

Beti pentsatzen duzu Bera-Bera edo horrelako beste talde

batean bukatuko duzula jokatzeko. Ilusio hori ezin da galdu. Baina hankak lurrean izan behar dira, eta heltzen banaiz, oso ondo, eta bestela, ez da ezer gertatzen. **Idolorik bai?**

Egia esan, ez daukat idolorik.

Gipuzkoako bi 'pitxitxi' Arrasate Eskubaloian taldean

Arrasate Eskubaloian taldean lan ona egiten dabilzan seinale dira Nestor Calleja eta Unai Rodriguez. Lehenak goleatzaile nagusiaren titulua jaso du Lehen Territorialean. Berak ere ez zekien zehatz-zehatz zenbat gol sartu dituen, baina 180 inguru izan direla ziurtatu digu. Bigarrenak ere *pitxitxi* saria jaso du, baina honek gazte mailan. Guztira 198 gol sartu ditu Unai denboraldian zehar.

Biek titulu hau Jesus Mari Herrero *Pitxi* zenari eskaini nahi izan diote. Urteetan entrenatzaile eta lagun izandakoari irakatsitako guztia eskertu nahi izan diote horrela.

Bai Nestorrek eta baita Unai ere denboraldi bikaina egin dute, nahiz eta euren taldeek hasieran zituak helburuak ez lortu. Datorren denboraldirako helburuei buruz galdetu diegunean argi zuten erantzuna: Lehen territorialekoak mailaz igo; azken urteetan puntuan egon eta gero, ezin izan dute eta ametsa gauzatu. Gazteek, berriz, Gipuzkoako txapelketa ateratzea. Gainera ez batari eta ez besteari ez litzaieke axolako *pitxitxi* titulua taldeko helburuengatik aldatzea. Bestalde, publikoari eskatu nahi diote hasiera-hasieratik laguntzea, horrela, jarritako helburuak lortzea errazago izango da eta.



KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Tres Hombres taldeak egin zuen hirugarren jazz kontzertua Bergaran | 24
- Bullanda taldeak flamenko funk doinuak eskaini zituen zapatuan Arrasaten | 25

Goikobalu abesbatzak eta Bergarako Orfeoak Orangen egin dute emanaldia | 25

MEXIKOKO FOLKLOREA

SAN LUIS POTOSIKO BALET FOLKLORIKOA | EGUBAKOITZEAN OÑATIN IZAN ZIREN ETA ZAPATUAN ARRASATEN

Mexikoren aniztasun folklorikoa Oñatin eta Arrasaten

Mexikoko lau estatutako dantza eta musika erakutsi zituzten; kolorea eta alaitasunaren isla laurak ere

Irailaren 8an Adiskidetasun Hitzarmena sinatuko du Oñatik San Luis Potosi hiriarekin

Monika Belastegi

Milaka kilometroko distantziara dago, baina oso ezagun eta gustuko dira geurean Mexikoko doinuak. Nork ez ditu abestu, aha-petik, besterik ez bada ere, *Mexiko lindo y querido* edo *Jalisco no te rajes?* Egia da, dena den, adin batetik gorakoan artean hedatuago daudela Mexikoko doinuak gazteagoen artean baino, eta hori nabaritu egin da asteburuan San Luis Potosi hiriko balet folklorikoak geurean egin dituen bi emanaldietan.

Egubakoitzean egin zuten lehenengoa, Oñatiko Santa Ana aretoan, eta Arrasaten bigarrena, zapatuan, Monterron parkean. Folklore jaialdi baten parte hartzera etorri dira estatua eta hori jakitean Oñatiko eta Arrasateko Udalen gonbita jaso zuten geurean ere emanaldia egiteko. Eta ez da kasualitate hutsagatik izan: San Luis Potosi hiriak Oñatirekin duen harremana aspalditik dator eta irailean Adiskidetasun Hitzarmena sinatuko dute. Horretarako, delegazio bat etorriko da handik.

KOLOREA ETA ALAITASUNA

Mexikora joateke badakigu zerbait gehiago hango folkloreak. San Luis Potosiko Balet Folklorikoak hainbat gauza erakutsi dizkigu. Lau ataletan banatu zuten ikuskizuna; bakoitza Mexikoko estatu bateko dantza eta musikaren isla izan zen. Guztietan, musikari taldea lagun izan

zuten hamabi dantzariak (sei emakumezko eta sei gizonezko).

Tamaulipasera eraman gintuzten lehenengo. Nayaritera gero; handik, Michuacóna eta azkenik, Jaliscora. Ikasi genuen Tamaulipasekoak dantza soila-goak direla, baita janzkera ere, ahuntz larruarekin egindakoa, bordatu eta litsekin. Zapateatua da dantzaren oinarria; oso zapateatu alaia.

Navariz eta Michuacónen, berriz, agerikoa da doinu zein dantzetan mestizajea; janzkeran ere nabari izan zen hori: buelo handiko soinekoak emakumezkoek eta oso kolore bizikoak. Gizonezkoak, berriz, zuriz jantzita. Jaliscora jauzi egitean mariachiak atera ziren eszenatokira eta Jaliscón jaiak nola ospatzen dituzten erakutsi zuten. Gainera, doinuak ezagunak izatean, ikusleek abestu ere egin zituzten.

San Luis Potosi Balet Folklorikoak hainbat gauza erakutsi zizkigun

Tamaulipas, Nayarit, Michuacón eta Jaliscoko doinu eta dantzak ekarri zituzten



AINZANE AGIRRE

Jantzien kolore biziagatik eta besoekin egindako mugimenduagatik tximeletak ziruditen askotan emakumezkoek.

San Luis Potosiko delegazioa Oñatira etorriko da irailean

San Luis Potosi hiriarekin Adiskidetasun Hitzarmena sinatuko du laster Oñatiko Udalak. Irailaren 8an hango delegazio bat, alkatea barne, Oñatira etorriko da eta bisita aprobetxatuko dute Adiskidetasun Hitzarmena gauzatzeko. Arrazoi historikotan oinarrituta hartu du erabakia Oñatiko Udalak (ekainaren 30eko osoko bilkuran aho batez onartu zuen udalbatzak). Izan ere, San Luis Potosi hiriaren sortzailea Oñatiko seme baten oinordekoa zen. Juan de Oñatek sortu zuen 1592an eta Oñatiko Narriondo baserrian jaiotako Cristóbal de Oñateren semea zen, Mexiko iparraldeko konkistatzaileen aitzindari izan zena, hain justu ere.

Horrez gain, AEBtako Santa Fe (Nuevo Mexiko) hiria ere konkistatu zuen Juan de Oñatek 1605ean eta hiri horrekin ere

Adiskidetasun Hitzarmena sinatzea onartu du Oñatiko Udalak.

SAN LUIS POTOSIKOAK OÑATIRA

Hitzarmenon helburua da hiriek elkar ezagutzea eta harremanak sendotzea, bertakoen arteko trukeak sustatzea, eta elkarlanerako bideak jorratzea ekonomia, kultura zein gizarte arloetan.

Horren harira, San Luis Potosiko delegazioa Oñatira etorriko da irailearen 8an. Estatuan hainbat leku bisitatzera datoz eta tartean Oñatin ere izango dira. Orduan hitzarmenaren sinatze ekitaldia egingo da. Horrekin batera, kooperatibetako jarduna bertatik bertara ezagutzeko gogoia ere badute. Hiri industrial modernoan da San Luis Potosi eta Fagor Industrial ere han lantegia zabaltzekotan da.

MEXIKOKO FOLKLOREA



Jalisco estatuaren tartean, hango jaia irudikatu zuten dantzariak.



Ikusleek dantza bakoitzeko txalotu zituzten dantzariak.



Michuacan estatuko dantzetan mestizajea nabaria da.



Dantzari eta musikarien auhena eta txistuek lagundu zuten ikuskizuna.



Emanaldiaren azkeneko zatian jantzi zuten dantzariak kapela mexikarra.



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

EROSKI
Grupo Eroski
Erosten jakin

JAZZ KONZERTUA | TRES HOMBRES TALDEAK JO ZUEN EGUBAKOITZEAN BERGARAKO ESPOLOIAN

Bi zati izan zituen jazz kontzertuak eta bigarrenengoarekin gozatu genuen gehien

Estilo "beltzak" fusionatzen dituzte eta inprobisazio saioak egiten onak direla erakutsi zuten Bergaran. Doinu dantzagarriak jo arren, kontzertu amaieran lortu zuten publikoa animatzea

Larraitz Zeberio

Talde madrildarra gaueko hamaiak aldera igo zen Espoiloiko kioskora. "Kontzertuari hasiera emateko maitasuna eta zoriona islatzen dituen kantua aukeratu dugu", esan zuen Jairo Zabala gitarra-jotzaile eta kantariak.

Ordu eta erdiko kontzertua egin zuen Bergaran Tres Hombres boskoteak. Maisuak dira estilo "beltzak" fusionatzen eta inprobisatzen ikusi genituen behin eta berriz.



Taldea boskote eran aritu zen eta hirukote basikoaz gain tronboia eta saxo bikainaren laguntzaz jo zuten.

AINTZANE AGIRRE

PUBLIKOIA HOTZ HASIERAN

Jende morda bildu zen Espoiloian Bergarako Udalak Zuhazti tabernaren laguntzarekin antolatutako kontzertua entzuzera. Gustura egoten zen, nahiz eta euri tanta gutxi batzuk egin. Laster ahaztu genituen egunez jasandako temperatura altuak. Horregatik, agian, publikoaren nagikeria

eserlekuetatik altxatu eta dantzan egiteko. Musikarekin gozatea nahiago izan zuten gehienek.

Bata bestearen atzetik musikariek Miles Davis, James Brown, Rufus Thomas, Led Zepelin edo Bob Marleyren bertsioak jo zituzten. Behin eta berriz ahalegindu zen kantaria entzu-

Saio oso librea egin zuten madrildarrek eta banaka luzitzeko aukera izan zuten partaide guztiek

Beltz kutsuko musika barrutik bizi dute. Jairo kantariaren ahotsak borobiltzen du emaitza

leak zutitzen. Kontzertuaren bigarren zatian lortu zuen bere helburu taldeak. Bertsio ezagunagoak jo zituzten amaiera aldera eta musikari bakoitzak bana-bana luzitzeko aukera izan zuen orduan. Argi dago barrutik bizi duela beltz kutsuko musika boskoteak.

Pop eta rock doinuak jo zituzten Oñatiko Gaztelekuan

Jende gutxi batu zen Gaztelekuan zapatu gauean. Triana auzoko jaiak konpetentzia egin zieten musikariei

Asteleheneko Goienkaria

Bartzelonako Roboto eta Oreretako Googie Van taldeak aritu ziren Oñatiko Gaztelekuko kontzertuan joan zen zapatuan. Ez

zen jende askorik agertu emanaldira, baina bertaratzea aukeratu zutenek emanaldi pop eta rockero bikainaz gozatu zuten.

Bi gitarra-jotzaileak (Fariña eta Campoy), baxu-jotzaileak (Toni), bateria-jotzaileak (Tete) eta Abel abeslariak osatzen dute talde kataluniarra. Soungarden, Kyuss eta Black Sabbath taldeen jarraitzaileak ziren hasierako urteetan. Harrezkero, 2000. urteetik aurrera, estiloa sendotu eta jada hiru disko grabatu dituzte.

Oreretako Googie Van taldeak, berriz, pop doinuak ekarri

zituen Gaztelekura. Oasis talde ingelesa gogorarazi zuten oreretarrek. Izan ere, talde horren ukitua dute oreretarrek, bai musika estiloan baita janzkeran ere.

JENDE GUTXI

Zapatuan ez zen jende askorik egon Oñatiko Gaztelekuan. Triana auzoko jaiak izan dira asteburu honetan eta herriko musikazaleek izan dute bestelako entretenimendurik.

Hala ere, aipatzekoa da Gaztelekuan egon zirenen gaztetasuna.



Googie Van taldea Oreretatik etorri zen Oñatira.

AINTZANE IRIZAR

GETXO | EUSKAL HERRIKO II. GRAFITI LEHIAKETA

Maila handiko grafitiak ikusi ahal izan ziren lehiaketan

Hibai Garai eta Iñaki Uriarte arrasatearrek ezin izan zuten saririk eskuratu euren grafitiarekin

Topaguneak hamar lan aukeratu zituen aurten Getxon egin den Euskal Herriko grafiti lehiaketarako

Marijo Deogracias

Iazko irailean Mendaron egin zen Euskal Herriko lehenengo grafiti lehiaketa. Orduko arrakasta ikusita Getxoko Udalarekin adostu zuen Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak bigarren lehiaketa, eta hara batu ziren aurrez sailkatutako hamar grafitigileak.

Tartean Hibai Garai 'Esan' eta Iñaki Uriarte grafitero arrasatearrak. *Gaurkoan, margotzen dugu disfrutatzen dugulako* lana aurkeztu zuten Topagunearen aukeraketara eta horixe bera mar-

laz baino maila handiagoa egon da Getxon jokaturako Euskal Herriko grafiti lehiaketan

gotu zuten Getxon, Arrigunaga kaleko horman. Hondartzan dagoen horma tokatu zitzaizen zozketan eta goizeko 09:15ak aldera ekin zioten lanari. Iñaki Uriartek adierazi digunez, "lekua oso polita zen, baina hainbeste ordu eguzkipean egoteak nahiko gogaitu gintuen. 16:30ak aldera amaitu genuen, aurreikusitakoa baino ordubate lehenago".

MAILA HOBEA

Osterantzean, iaz Mendaron egin dako lehiaketan baino maila hobea zegoela aitortu digu Iñakik. "Iaz sariak eskuratuko zituzten 5 grafitiak zeintzuk izango ziren argi zegoen, aurten aukeraketa latza izan da".

Antolaketa aldetik ere lehiaketa hobeto egin dela aitortu digu. "Bazkaltzeko etenaldi oso laburra egin genuen; ogitarteko bana jan genuen, hartara ez genuen lana denbora luzez eten behar izan. Iaz jatetxe batera joan ginen eta horretarako margo guztiak gorde eta



7x2 tamainako lana egin zuten arrasatearrek Getxoko hondartzako hormaren kontra.

ASTELEHENKO GOIENKARIA

hori guztia egin behar izan genuen. Aurten hobeto antolatua gara". Arrasatearrek 7x2 tamainako grafitia egin zuten eta lehiaketara aurkeztutako bozetoa baino koloretsuagoa eta biziagoa geratu zitzaizela aitortu digute antolatzaileek eta egileek eurek.

Getxon egin zen lehiaketa. Egoera soziolinguistikoko bereziagatik aukeratu zuen Topaguneak eta "gustura geratu gara izandako harrerarekin. Jende askok parte hartu du grafitiak ikusteko ibilbidean, aldapsua izan arren", adierazi digu Maria Gonzalez komunikazio arduradunak.

Lan sarituak

- **EMAKUMEARI SARIA**
laz gai onenaren sari berezia izan zen eta aurten emakume batek egindako lan onena saritzea adostu zuten. Irabazlea Eneritz Velasco izan zen. Aipatzekoa, talde askotan aritu zirela emakumezkoak.
- **KOLOREAREN ERABILERA**
Kolarearen erabilerarik egokienaren saria Eva Mena, Ruben Daniel Martinez eta Jorge

Martinek eskuratu zuten izenburu bako grafitiarekin.

- **TEKNIKARIK ONENA**
Teknikarik onenaren saria GraffManiatiks taldeak irabazi zuen.

- **FRESKOTASUNA ETA ERAKARGARRITASUNA**
Freskotasunaren eta erakargarritasunaren saria Nuria Sierra eta Aratz Ruizek lortu zuten *Amestu eta aske* izan lanagatik.

Hamar mila lagunen aurrean egin zuten kontzertua

Orange hiriko anfiteatro erromatarrean aritu ziren Goikobalu eta Bergarako Orfeoiko kideak

Marijo Deogracias

Orangerak (Frantzia) joan dira asteburuan Arrasateko Goikobalu abesbatzako 30 lagun eta Bergarako Orfeoiko 15 lagun, Bilboko Elkarte koralko gonbidatuta. Hango anfiteatro erromatarrean aritu ziren Carmina Burana obran parte hartzen. Soka

taldean aritu ziren zapatuan egin dako emanaldian, 10.000 lagunen aurrean. Egubakoitzean abiatu ziren Frantziara eta tartean Avignon bisitatzeko astia ere izan zuten ibarreko abeslariak.

SALAMANCA ETA MADRIL

Bestalde, eta Donostiako Orfeoiko gonbidatuta, Goikobalu abesbatzako beste sei kidek bi kontzertu eman dituzte Espainian asteburuan zehar. Zapatuan Alcalá de Henaresera bidaiatu zuten, Cervantesen urteurreneko emanaldi batera. Udako kontzertuen barruan aritu ziren Goikobalukoak. Domekan, berriz, Salamancara bidaiatu zuten Donos-

tiako Orfeoiekin. Bi emanaldietan Murtziako orkestra izan dute lagun eta opera abesbatzen emanaldiak eskaini dituzte.

ELKARTASUNA

Bai Orangerak zein Alcalá de Henares eta Salamancara egin dako emanaldiak "ohikotzat" jo dituzte Goikobaluko eta Orfeoiko kideak. Orangerak, esaterako, orain dela 3 urte ere joan ziren Goikobaluko kideak; izan ere, "Carmina Burana egiten duten bakoitzean deitu egiten digute, guk ere bere egunean lan hori egin baikenuen", azaldu digu Orangetik Goikobaluko kide batek.



Orange hiriko anfiteatro erromatarrean 10.000 lagunen aurrean aritu ziren.

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Zestoarra sortzez, peritua izanik itzulpengintzan aritu izan da urte luzez Elhuyarren. Elhuyar sortu eta berehala hasi zen han beharrean, baina dagoeneko

erretiratu da. Jubilatuta egin da eta bere zaletasunari denbora gehiago eskaintzeko astia dauka: zezenak. Zestoako herriko plaza du zezen-plaza kuttun, baina plaza

asko ezagutu ditu Iñaki Azkunek. Bergaran izan zen joan zen egubakoitzean *Sokamuturra* berbaldia egiten, Aroztegi aretoan.

IÑAKI AZKUNE | ZEZENZALEA

“Toreatzaileek, bertsolariak moduan, ezin dituzte gauzak pentsatuta eraman plazara”

Marijo Deogracias

San Ferminetako entzierroak jarraitu dituzu?

Bai, telebistaz. Korrikalari batzuk oso onak izan dira, hori ikusi egiten da: nola sartzen eta nola ateratzen diren zezenaren aurretik; beste batzuk, tontakariak egiten aritzen dira. Bestela, zezenak, egun batekoak izan ezik, nahiko garbi joan dira.

Lehen noiz edo noiz ibilia naiz bigantxeekin. Guk larra-behiak esaten diegu, baina jada ez naiz horretan ibiltzen jakina.

Zezenketak ere gustuko dituzu?

Nik dena; aukera asko dago eta unean-unean nahi den tokira joaten naiz.

Nondik zezenzaletasuna?

Gure herrian, 1667. urtean, plaza txikia zela eta, harresia bota zuten plaza handitzeko. Paperetan agertzen da zertarako nahi zuten plaza handitzea: zezenak korritzeko.

Gaur egun zezenzalea izatea ez dago hain ondo ikusia, ala?

Niri bost axola. Hedabide batzuk ez dira zezenetaz batere ardurutzen, eta hika-mika sorrazten aritzen dira. Nik horrelakoetan ez dut ezer esaten.

Ilunbeko zezen-plazan aholkulari aritu zinen.

Plazaburuaren aholkulari izan nintzen bost urtez; galdetzen zuenean erantzuteko gertu.

Zer nolako da Ilunbeko zezen plaza?

Fenomenoa. Ilunbeko harmailaren azkeneko lerroak, punta batetik besteraino, 101 metroko diametroa dauka eta erdian ez du inolako zutaberik eusteko. 101 metroko tartea zutaberik gabe

dago eta goiko teilatua ireki eta itxi egiten da. Teknikaren miraria da. Zer esango dizut bada: peritu alderdia ere badaukagu eta... Euskal Herriko beste edozein zezen-plazak zutabeak ditu. Ibiak gara burua batera eta beste batera mugitzen zezenketak jarraitzeko! Baina Ilunbekoak bezalakoak ipini behar dira. Egon badira plaza batzuk xarma badutenak (Azpeitia, Zestoa, Deba), baina berria egiten denean erabilpen anitzekoak egin behar dira, eta estaliak. Bilbotarrak ere hasita daude euren ikerketak egiten, itxi nahi dutela-eta. Joera hori da, ixtekoa.

Toreatzaileen artean faboritorik baduzu?

Bai, beti izaten ditut, zezena pasa eta gero. Arratsalde horretan ondo egon dena izaten da nire faborito. Jakina, mailaka-

tuta dauzkat eta oso onak badaude; miresteakoak batzuk. Bertsolariarekin alderatzen ditut askotan, gauza komuna dutelako: inprobisazioa. Ezin dituzte gauzak pentsatuta eraman plazara. Bertsolariari gai ezberdina ateratzen zaio bakoitzean eta toreatzaileari ere bai: zezena da gaia eta momentuan bertan inprobisatu behar du. Inprobisazio horretan biak miresten ditut. Oso gutxi daukate dohain hori.

Eta gainera ondo atera, ezta?

Horixe!, bertsolariak poto egiteko arriskua du eta jendearen aurrean lotsagarri geratu eta toreatzaileak abarkekin ohera jotzekoa.

Zezen kronikak euskaraz ere egin izan dituzu. Badaukagu garatutako terminologiarik?

Nik neure ahalegina egin nuen. *Zezenak Euskal Herrian* liburuan hiztegitxo bat gehitu nuen eta badakit gaur egun ere erabiltzen dela: San Ferminetako entzierroetan Iñaki Elortza kazetariak oso ondo erabili izan du terminologia. Zezenek hemen urte asko daramate, eta artxiboetan arakaten aritu nintzenean ere, termino asko aurkitu nituen. Bilintzek ere bertotan bota zituen hitzok. Ez dut esango erreminta zorrotza denik, baina beste edozein arlotako terminologia bezain zorrotza izan daiteke.


Ikusiko duzun hurrengo zezenketa?

Azpeitian San Inazioetan. Denboraldia Fiteron hasten da. **Lanbideagatik nahikoa itzulpen egindakoa zara, Elhuyarren.**

Txirritak bertso batzutan jaso zuten moduan, 'ahaleginaren faltan ez daukat kontzientzian zorri-

“Ilunbe fenomeno da; 101 metroko diametroan ez du zutaberik. Teknikaren miraria da”

“Bertsolariak poto egin eta lotsagarri geratzeko arriskua du; toreatzaileak, berriz, abarkekin ohera jotzekoa”



AINZANE IRIZAR

Zezenak Euskal Herrian liburua idatzi zuen Iñakik orain urte batzuk.

kan'. Elhuyar aldizkaria sortu eta berehala hasi nintzen bertan, hasieran boluntario moduan. Klandestinitatean hasi ginen. Adiskideen Elkartearen adar bat izan ginen, lege aldetik; bestela ez genuke lege babesik izango. Alvaro del Valle Lersundi eta

Bergarako alkate izan zen Zaballak-eta, fabore ikaragarria egin ziguten; bestela Fragarren garai-ko *Ley del bandillaje y terrorismo* taldea ginatke.

Gaur egungo antzera, orduan.

Lehenago lepotik burua batzuek.

Zezenzale ugari elkartu zen Bergarako Aroztegi aretoan egubakoitzeko berbaldira

Juan Luis Bikuñak aurkeztuta Bergarako Aroztegi aretoan izan zen egubakoitzean Iñaki Azkune *Sokamuturra* berbaldia egiten. Euskal Herriko zezenzaletasunaz aritu zen, orain dela urte batzuk idatzi zuen *Zezenak Euskal Herrian* liburuan jasotako kontuak gogora ekarriz. Azaldu zuenez, “hemen beti egon da zezena, abelazkuntza, laneko kontuak. Laneko kontuak batzuetan plazara eramaten dira eta festa bihurtzen dira, eta zezen festek ere horrelako eboluzioa izan zuten. Sokamuturra festa horren zati bat da eta horren gaineko albiste historikoak batu nituen, besteak beste, *Zezenak Euskal*

Herrian liburuan”. Bergarako zezenketen garrantzia azpimarratzeko gogora ekarri zuen Iñakik Euskal Herriko Adiskideen Elkarte Bergarako zezen-jaietan osatu zela: “1763. urtean, Bergarako jaietan egiten ziren zezenketara jende asko batu zen eta orduan sortu zen Erret Mintegia eta Euskal Herriko Adiskideen Elkarte”.

Aroztegi aretoan dagoen Eduardo Arrillagaren *Sokamuturra* argazki erakusketa dela eta egin zuten berbaldia. Argazki erakusketak 1992-2001. urteen artean ateratako sokamuturren irudiak jasotzen ditu eta uztailaren 24ra arte egongo da ikusgai.



Blogetik parte hartu ahal izango da Gomendatzen Dizut... lehiaketan

Bloga prestatzen ari dira Arrasate eta Bergarako gazte bulegoak, eta datozen egunotan izango da erabiltzeko modua

Leire Kortabarria

Berritasunak ditu aurten Gomendatzen Dizut... gazte informazio zerbitzuek antolatutako lehiaketak. Hala, Interneteko parte-hartzea bultzatuko dutela blog baten bidez. Blog hori prestatzen ari dira, eta laster egongo da sarean. Blogean bertan sartu ahal izango dituzte erabiltzaileek euren gomendioak. Horrez gain, iaz bezala, Internet bidez jaso eta bidal daiteke parte-hartze fitxa, honako helbidean: www.arrasate-mondragon.org/Udala/Txostenak/GomendatzenDizut05B.

Bestetik, Debagoieneko gazte bulegoek sortutako eredu hori Gipuzkoara hedatu da, eta

sei bulegok egin dute deialdia: Arrasatek, Bergarak, Azkoitiak, Azpeitiak, Andoainek eta Elgoibarrek. Denek egin dute deialdia oporretako gomendioak uzteko, baina bakoitzak bere saria emango du.

Oinarriak aurreko berberak dira: fitxa bat bete behar da oporretarako gomendio batekin. Oporretako edozer gauza izan daiteke: alojamendua, leku edo hiri interesgarriak... eta zer ez duten gomendatzen ere jar dezakete. Parte hartzeko muga-eguna da urriaren 26a, eta landetxe baten asteburu bana zozketatuko dute Arrasaten eta Bergaran.

IAZ, 28 GOMENDIO

Iaz, Arrasaten eta Bergaran 28 gomendio jaso zituzten, 15 nekarenak eta hiru mutilenak, guztiak euskaraz. Arrasaten, guztiak posta elektronikoz jaso zituzten; Bergaran, eskura eta, bat, postaz. Gomendio gehienak lekuaren gainekoak ziren; geografikoki, Euskal Herriaren eta Espainiaren gaineko gomendioak eta, horrez gain, beste 11 herrialdekoak.

Hitzorduak



EUSKAL DANTZA SAIOA ETA JAZZ KONTZERTUA, EGUNOTAKO ESKAINTZA | Lore Gazteak taldearen eta Teresa Zabalza 5et-en emanaldiak

Aire zabaleko musika eta dantza emanaldiak izango dira datozen egunotan, zenbait herritan antolatu duten uztaileko kultura egitarauaren barne.

Hala, egunean, hilak 21, Arrasateko Lore Gazteak euskal dantza taldeak ikuskizuna egingo du Monterron parkean, 22:00etan. Modu horretara,

urtero bezala, taldeak ikasturte osoan egindako lana jendaurrean erakutsiko du.

Bestelako proposamen bat dago Bergaran, egubakoitzean, hilak 22: Teresa Zabalza 5et taldeak jazz emanaldia egingo du Espoioian, 22:30ean. *Euria* diskoko abestiak eskainiko dituzte.

Labur

Eskoriatza eta Ibarraundi museoaren gaineko DVDa salgai jarri dute

Salgai dago Eskoriatzaren eta Ibarraundi museoaren gaineko DVDa museoan bertan. 6 euro da prezioa. 9 minutuko film horrek herriko, museoeko eta Debagoieneko irudiak jasotzen ditu. Testua hainbat hizkuntzatan dago.

Bestetik, Ibarraundi museoak zabalik jarraituko du uztaile osoan, besteak beste, turismo informazio zerbitzua eskaintzen. Honako ordutegia izango du: astegunetan, 09:00-13:30 eta 16:00-19:00, eta asteburu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

'Oñati-irudiak' liburua aurkeztuko dute egileek bihar, martitzena

Oñati-irudiak erakusketa dago Oñatiko kultura etxean. Bihar, martitzena, argazkiok batzen dituen liburua aurkeztuko dute hantxe, 19:00etan. Oñatiko Udalak, Antonio Murillo argazkilaria eta Jose Felix Diaz de Tuesta egile elkarteak berba egingo dute.



'Cocidito Madrileño' antzezlanerako sarrerak erosteko dei egiten dute

Cocidito Madrileño antzezlan egingo dute irailean Elgetako Espaloia kafe antzokian, eta sarrerak salgai daude dagoeneko. 12 euro da salneurria, 10 Goibeko elkarte bakoitzeko. Antolatzaileek dei egiten dute txartelak ahalik eta lasterren erostera joateko, bigarren emanaldi bat antolatzeko aukera egon daitekeelako.

Antzezlan hori Javier Vizcaino irrati esatariaren saioan oinarrituta dago, eta Madrilgo irrati-tan Euskal Herriaz esandakotan dago oinarrituta.

ZINEMA |

• *El escondite* filma emango dute gaur, astelehena, Oñatin Kultura etxean emango dute film hori, 19:30ean. Ikuslearen eguna denez, 3 euro da.

• *Los chicos del coro* filma emango dute Eskoriatzan Herriko plazan izango da film horren emanaldia gaur, astelehena, 22:15ean.

• *Unibertsolariak* filmaren emanaldia Aretxabaletan Aretxabaletako plazan emango dute film hori bihar, martitzena, 22:30ean.

• *Omagh* filma emango dute eguaztenean Elgetan Espaloia antzokian emango dute film hori etzi, eguaztana, 21:30ean.

• *El diario de Bridget Jones. Sobreviviré* filma Eskoriatzako plazan izango da saioa etzi, eguaztana, 22:15ean.

• *Millones* filma emango dute Arrasaten egubakoitzean Monterron parkean izango da emanaldia hilaren 22an, egubakoitza, 22:30ean.

• *Diarios de motocicleta* filma emango dute Aretxabaletan Herriko plazan emango dute film hori hilaren 22an, egubakoitza, 22:30ean.

• *Spider-man 2* filma emango dute Eskoriatzan Herriko plazan izango da film emanaldia hilaren 22an, egubakoitza, 21:15ean.

IKASTAROAK |

• *Aretxabaletako KZGunean, hainbat ikastaro* Honako Internet ikastaroak emango dituzte: NagusiWeb (hilaren 18tik 22ra); postala bidaltzen ikastekoa (gaur, astelehena); eta ardoaren gainekoa (hilaren 22an, egubakoitza).

• *Malabare ikastaroa deitu dute Aretxabaletan* Malabare ikastaroa antolatu du Gazte Ekimenak hilaren 20tik 22ra bitartean, 18:00-20:00 ordutegian. Izenemate epea zabalik dago Ezkutu tabernan. 3 euro da.

• *Oñatiko KZGuneako Internet ikastaro eskaintza* Honako ikastaroak izango dira: Internet oinarritzako ikastaroa (gaur, astelehena, 09:00 edo 14:00); bat-bateko mezularitza (bihar, martitzena, 16:00); eta egunkaria irakurtzearena (hilaren 21ean, eguena, 16:00).

ERAKUSKETAK |

• *Jose Ramon Elortza elgoibartarraren margolanak* Jose Ramon Elortza margolaria (Elgoibar, 1967) erakusketa du hil osoan Arregi markoztatze dendan. 18 lan dira. Motibo geometrikoak erabiltzen ditu, abstrakzioak egiten ditu Elortzak, betiere kolore biziak erabiltzen. Informazio gehiago, www.jrelorza.com webgunean.

• *Eduardo Arrillagaren Sokamuturra erakusketa* Bergarako Aroztegi jauregian dago hilaren 23ra arte, zapatua, honako ordutegian: astegunetan, 18:30-20:30; zapatuan, horrez gain, 12:00-14:00.

• *Kartoiak erakusketa dago Elgetako Espaloia antzokian* Jokin Rodriguez arrasateararen 18 lan daude erakusgai. Hil osoan dago zabalik.

DEIAK |

• *Baserría zarzuelarako entsegu egunak asteon* Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak honako entsegu egunak zehaztu ditu: gaur, astelehena, eta etzi, eguaztana, Arrasate Musikalen, 19:30ean.

MUSIKA |

• *Chico Boom bakarlariaren kontzertua Arrasaten* Egubakoitzean, hilak 22, izango da emanaldi hori 3.60 aretoan, 23:00etan. Señor No taldeko kide ohia da Chico Boom.

• *Musika emanaldiak Elorrion Musikaire jaialdiaren barne* Honako emanaldiak izango dira datozen egunotan: hilaren 22an, egubakoitza, Cibelleren brasildar musika elektronikoko emanaldia, Herriko plazan, 22:30ean; eta zapatuan, Celtish taldearen zeltar folklore musika kontzertua Tola jauregian, 22:30ean.

Eguraldia



Astea euriarekin hasi arren eguraldi ona egingo du martitzenetik aurrera

Antza denez, pattal antzean hasiko dugu astea. Adituek diotenez, gaur zerua hodeiez josita egongo da eta zaparrada trumoisuak izan daitezke goiz partean. Temperaturak ere behera egingo du eta 20 graduren bueltan geratuko da. Hala ere, eguna pasa ahala atertzuz joango da eta ostarteak agertzen hasiko

dira. Hurrengo egunetan ere eguraldiak hobera egingo du. Dirudienez, Azoreetako antizikloia hurbilduko zaigu, baina fronte hotz ahul bat gure lurraldetik gertu pasatuko da eta hodei batzuk utziko ditu. Temperaturak gora egingo dute giro atsegina sorraraziz. Batez beste 22-27 gradu izango ditugu.

Goardiako farmaziak

ARRASATE

Astelehena, 18	Zabala	Zarugalde 42-44 (943 77 16 30)
Martitzena, 19	Español	Arabako etorb. 14 (943 79 18 65)
Eguaztena, 20	Español	Arabako etorb. 14 (943 79 18 65)
Eguena, 21	Ruiz	Maala 31 (943 79 14 09)
Egubakoitza, 22	Zabala	Zarugalde 42-44 (943 77 16 30)

BERGARA

Astelehena, 18	Estella	Matxiategi 5 (943 76 19 63)
Martitzena, 19	Mozos	Iparragirre 2 (943 76 12 15)
Eguaztena, 20	Guallar	San Antonio 5 (943 76 11 05)
Eguena, 21	Estella	Matxiategi 5 (943 76 19 63)
Egubakoitza, 22	Mozos	Iparragirre 2 (943 76 12 15)

OÑATI

Astelehena, 18	Garate	Kale Barria 42 (943 78 05 58)
Martitzena, 19	Barrenetxea	Kale Zaharra 1 (943 78 11 28)
Eguaztena, 20	Garate	Kale Barria 42 (943 78 05 58)
Eguena, 21	Barrenetxea	Kale Zaharra 1 (943 78 11 28)
Egubakoitza, 22	Garate	Kale Barria 42 (943 78 05 58)

ARETXABALETA

Astelehena, 18	Iturralde	Belorrieta 1 (943 08 11 43)
Martitzena, 19	Iturralde	Belorrieta 1 (943 08 11 43)
Eguaztena, 20	Iturralde	Belorrieta 1 (943 08 11 43)
Eguena, 21	Iturralde	Belorrieta 1 (943 08 11 43)
Egubakoitza, 22	Iturralde	Belorrieta 1 (943 08 11 43)

Telefono jakingarriak



OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larriald.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoa	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63

Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Laixan / Oñati	943 71 63 11
Hondakindegia Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegia

Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak

Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 11	2 · 24 · 27 · 37 · 40 · 41
Osagarria: 46 Itzulketa: 7	
Martitzena, 12	7 · 14 · 18 · 22 · 23 · 36
Osagarria: 21 Itzulketa: 3	
Eguaztena, 13	1 · 5 · 23 · 25 · 34 · 37
Osagarria: 2 Itzulketa: 9	
Egubakoitza, 15	2 · 7 · 20 · 26 · 30 · 33
Osagarria: 19 Itzulketa: 7	

ONCE

Astelehena, 11	36.755
Martitzena, 12	44.611
Eguaztena, 13	41.226
Eguena, 14	11.488
Egubakoitza, 15	28.842
Kupoitzarra (083 seriea)	
Domeka 17	05.106
Kupoitzarra (050 seriea)	

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguena, 14	6 · 7 · 8 · 41 · 42 · 49
Osagarria: 1 Itzulketa: 1	
Zapatua, 16	4 · 5 · 20 · 24 · 25 · 39
Osagarria: 17 Itzulketa: 8	
Domeka, 17 (Saritzarra)	2 · 14 · 31 · 37 · 38
Zenbaki klabea: 6	

Gazte zerbitzuak

BEKAK

• **Eusko Jaurlaritza.**
2005-2006 ikasturtean unibertsitateko ikasketak eta Eusko Jaurlaritzaren Goi mailako beste ikasketak batzuk egiteko bekak. Epea: urriak 15.

EKINTZAK

• **Caritasen auzolanderdiak.**
Etorkin, gaixo mental, preso eta bestelako gizarte taldeekin aritzeko boluntarioak behar dira. Mugatutako plazak.

IKASTAROKAK

• **Web orriak egiteko.**
Zubeldiako Inem bulegoak zerbitzarien eta web orrien administratzaile-ikastaroa antolatu du uztaileak 26tik azaroaren 28a arte.

• **Langabeak.** Elgoibarko Makina Erreminta Institutuak

langabetuendako ikastaroak hasiko ditu irailean. Mugatutako plazak.

LEHIAKETAK

• **Bidaia argazkien II. Viajarte 05 lehiaketa.** A Coruña Udalaren Gazteentzako Informazioa Zentroak antolatu du. Epea: abuztuak 27.
• **'Colorines' komiki lehiaketa.** 18tik 30 urtera bitarteko gazteendako. Gai eta teknika librean. Epea: irailak 9.

LANA

• **Administrazioa.** Azpeitiko Udalak administrazio kudeaketako 3 lanpostu betetzeko deialdia egin du. Epea: uztaileak 18.
• **Ingurumen teknikaria.** Zarauzko Udalak erdi-mailako teknikaria behar du. Epea: uztaileak 19.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gip@oinatigazteleku.com



Antzuola:
• Altzarte okindegia
• Martin okindegia

Elgeta:
• Kioskoa

Bergara:
• Bolintxo okindegia
• Ogizun okindegia
• Konde okindegia
• Olabe okindegia
• Mizpildi okindegia
• Plazako Kioskoa
• Txurrerua Kioskoa

Arrasate:
• Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
• Balantzategi kioskoa
• Portaloiko kioskoa
• Usue paper denda
• Bolintxo Okindegia
• Kurruxko okindegia

Aretxabaleta:
• Errasti kioskoa
• Ibarra estankoa

Eskoriatza:
• Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:
• Labidea

Aramaio:
• Plazako kioskoa

Oñati:
• Haritza Kioskoa
• Ibarrondo Kioskoa
• Eskolatxo okindegia
• Arantxa okindegia
• Irizar okindegia
• Ogibari okindegia
• Olakua okindegia
• San Lorentzo okindegia
• Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Iker Zubizarreta
Uztailaren 23an, 3 urte bete zituen. Familiakoek bereziki Jonek: Zorionak!



ARRASATE
Nekane Lopez
Uztailaren 13an, 31 urte. Zorionak eta muxu bat familia eta lagunen partez!



ARRASATE
Aitor Etxebarria
Uztailaren 18an, urtebetetzea. Zorionak, Txarri! Lagunak.



ARRASATE
Maider Azkarraga-Urizar
Uztailaren 7an, 10 urte. Zorionak! Etxekoak.



BERGARA
Maider San Torcuato
Uztailaren 12an, 9 urte. Zorionak! Amaia eta gurasoak.



BERGARA
Nekane Alegria
Uztailaren 15an, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Jon Ander Rodriguez
Uztailaren 15an, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Maddi Mujika
Uztailaren 15ean, 11 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxeko guztien partetik.



BERGARA
Malen Sampietro
Uztailaren 22an, 6 urte. Zorionak moderna! Asier eta Unai.



BERGARA
Miren Txurruka
Uztailaren 24an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Unai Txurruka
Uztailaren 27an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Sherezade Moreno
Uztailaren 23an, 22 urte. Zorionak. Gurasoak eta bere ahizpa Yasmina.



OÑATI
Malen Gesalaga
Uztailaren 10ean, urtebete. Zorionak, Malentxo! Nerea eta osaba Ekaitz.



ARETXABALETA
Laia Arriola
Uztailaren 17an, 3 urte. Zorionak eta muxu bat. Ama, aita eta etxeko guztiak.



ARETXABALETA
Mikel Egia
Uztailaren 21ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoak.



ELGETA
Jone Elkoro
Uztailaren 16an, 7 urte. Zorionak eta muxu bat! Familia eta lagunak.



ELGETA
Leire Azkarraga
Uztailaren 17an, 12 urte. Urte askotarako! Familiakoak.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN




Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAK** egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali esleria:
irratia@goiena.com helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7
ARRASATE IRRATIA



ESKELAK
ASTELEHENKO
GOIENKARIAN

82 euro
943 76 92 71

Jaiotakoak



Nora Altuna Ramirez
Oñati • 2,560 Kg. Uztailak 10.
Gurasoak: Imanol (Oñati) eta Maria (Ordizia). Argazkian: Nora lo bere kumatxoan.



Nora Aranburu Rebuelta
Bergara • 3,500 Kg. Uztailak 11.
Gurasoak: Javi eta Cristina (Bergara). Argazkian: Nora lo bere amarekin.



Ibai Merino Arteaga
Arrasate • 3,695 Kg. Uztailak 12.
Gurasoak: Jose eta Izaskun (Arrasate). Argazkian: Ibai amaren besoetan.



Galder Duran Nafarrate
Oñati • 2,700 Kg. Uztailak 13.
Gurasoak: Fernando (Bergara) eta Aitziber (Eskoriatza). Argazkian: Galder amaren besoetan.



Jefry Lapaix Acosta
Bergara • 3,400 Kg. Uztailak 13.
Gurasoak: Henry eta Andrea (Dominikar Errepublika). Argazkian: Jefry amarekin.



Oihane Gallego Fernandez
Arrasate • 3,075 Kg. Uztailak 14.
Gurasoak: Ander (Miranda) eta Ana (Arrasate). Argazkian: Oihane Gorka osabarekin.



Markel del Rey Navarro
Aretxabaleta • 3,500 Kg. Uztailak 14.
Gurasoak: Antxon (Arrasate) eta Idoia (Lasarte). Argazkian: Markel amaren besoetan.



Nora Gabilondo Aristi
Bergara • 3,700 Kg. Uztailak 14.
Gurasoak: Erkaitz (Bergara) eta Irene (Sorluze). Argazkian: Nora gurasoekin.



Ahintz Larrinaga Aranburu
Aretxabaleta • 3,685 Kg. Uztailak 15.
Gurasoak: Julen (Aretxabaleta) eta Ainhoa (Arrasate). Argazkian: Umea lo.



Naia Mendiaraz Pildain
Arrasate • 3,610 Kg. Uztailak 17.
Gurasoak: Paul eta Nerea (Arrasate). Argazkian: Naia, amaren besoetan.

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Uda giroan' | 10:00

Bilboko auto-lasterketa eta Frantziako Tourra

Uda Giroan saioan Bilbon jokatu berri den auto lasterketaz jardungo dute, konpetizioko autoak prestatzeko masterra egiten diharduen lagun batekin. Horrekin batera, asteburua Tourrari jarraiki igaro duten debagoiendarrak ere ezagutuko ditugu.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Udako programazioa' | 12:00

Medicus Mundik Afrikan duen proiektua

Donostiako Medicus Mundiko Inge kidearekin hitzordua egin dute 12:15erako. Afrikako gune batean jangela solidarioak sortzeko egitasmoa lantzen dabilta Medicus Mundi elkarteak. 500 bat umerendako antolatuta gura dituzte jangelak.

Loiola Irratia

FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Azpeitiko San Martin egoitza berbagai

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00, 12:00

Euskadiko ezinduen gaineko egitasmoa

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 09:00-13:00

Elkarriko Gorka Espiau elkarrizketatuko dute

Gaur telebistan

GOITB



Egungo musikaren berri, 'Klip@'-n 19:45

Europar eta AEBn gehien entzuten duten musika aurkituko duzue Klip@telebista saioan, gaur arratsaldean.

13:45 Emisio hasiera. 13:50 Marrakiz bizidunak: Sherezade (Egubakoitzeko emandakoaren errepikapena). 14:15 Berriak aurrerapena. 14:30 Ilunpean. Saioen errepikapenak. 15:00 Eguzki lore. Protestantismoa. XVI. mendean. Joana Albretekoaren eskutik protestantismoa hedatu zen Nafarroako erresuman. Leizarragaren bibliaren aipamena ere egingo dute. 15:30 Berriak. Eguneko aurrerapena arratsalde hasieran. 15:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideo klipak. Hainbat musika estilo. 19:40 Emisio hasiera. 19:45 Klip@. Egungo musikaren gaineko saioa. 20:00 Berriak. Deiane Arrietak aurkeztutako albistegia. 20:30 Marrakiz bizidunak. Sherezade eta Lazkao Txiki. 21:00 Harmailatik. Tourra. 22:00 Berriak. Gaueko albistegiaren errepikapena. 22:30 Harmailatik. Saioaren errepikapena. 23:30 Emisioaren amaiera.

ETB 1



Jesus ospitalean, hilzorian 21:45

Danelek mezu bat utziko dio Naroari. Horrekin batera, Maria Luisak jakingo du Jesus ospitalean dagoela.

07:15 Udanbeblai. 07:45 Oporrock 05. 08:05 Tik Tak Circus. 08:35 Betizu. Saneta Max, Ziegak eta heren-sugeak, Montana, Sasi Herriko Ipuinak, Garfield eta lagunak, Dora-emon katu kosmikoa, Hirukiak, Burdin Aho eta Bereziko espioiak. 14:00 Gaur Egungo 1. 14:35 Eguraldia. 14:45 Betizu. Pokemon, Bizargorri, Beekereak eta Lukas aha-tearen filmea. 17:00 Altza porru! 18:00 Iparraldearen orena. 18:05 Oporrock 05. 18:30 Bidaide. Indonesia basatia. 19:20 Chiloe. Hungaria, magyar ondarea. 19:45 Trebeen trebeena. 20:00 Betizu. 20:20 Eguraldia. 20:28 Gaur Egungo. 21:05 Udanbeblai. 21:45 Goenkale. 22:25 Wazemank. 23:30 Ero eta bero. 00:30 Kar kar kluba. 01:00 Egi bidean. 01:10 Bakarrik edo... 03:10 Udanbeblai. 03:40 Oporrock 05. 04:10 Euskal Herritik. Inazio Aregi. 04:30 Elkartasunaren bideak. India: Indiarren erroak. 05:00 Bitan.

ETB 2



Porno izar bati egingo diote ebakuntza 21:55

Christianek eta Seanek garai baten porno izar izan zen aktore bati egin behar diote ebakuntza.

07:10 Del país de los vascos. Balleneros de Getaria. 07:40 Rutas de solidaridad. Andes. 08:10 Embrujada. 09:05 Forum. 09:35 El Punto. 10:10 Matrimonio con hijos. 11:00 Stargate. Abandonados. 12:10 Se ha escrito un crimen. Otra historia de pescadores. 13:50 Date el bote. Carlos Soberarekin. 14:58 Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua. 15:55 Eguraldia. Ana Urrutiarekin. 16:00 Pásalo. 18:20 Cine Western. Zehaztu bariko filma. 20:20 Esta es mi gente. Claudio Landarekin. 20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrekin. 21:50 Eguraldia. 21:55 Nip/Tuck: agolpe de bisturí. 23:50 El día en imágenes. 23:55 Doctoras de Filadelfia. 01:30 La zona muerta. El valle de las sombras. 02:25 Ésta es mi gente. 03:05 Date el bote. 04:05 Pásalo. 05:40 Forum.

TVE 1



Mutante batek eraso egingo dio Lanari 00:30

Kryptonitak eragin-dako mutante batek eraso egingo dio Lanari, baina ikasle batek salbatuko du.

06:00 Canal 24 horas. 07:00 Telediario matinal. Igor Gomezekin, Susana Rozarekin eta Salvador Martín Mateosekin. 10:15 Saber vivir. 11:00 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egin dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du. 14:00 Informativo territorial. 14:30 Corazón de verano. Txutxu-mutxuen gaineko saioa Anne Igartibururekin. 15:00 Telediario 1. Ana Blanca eta Maria Escariorekin. 15:55 El tiempo. 16:00 Amarte así, frijolito. 17:15 Amor Real. 17:45 España directo. 19:15 Obsesión. 20:15 Gente. Sonia Ferrerarekin eta Maria Jose Molinarekin. 21:00 Telediario 2. Lorenzo Milárekin eta Jesus Alvarezekin. 21:55 El tiempo. 22:00 Mira quien baila. Ane Igartiburuk aurkeztzen duen dantza saioa. 00:30 Smallville. El exterminador. 01:30 Telediario 3. 02:00 Siete días. 03:00 Canal 24 horas.

La 2



'La selva esmeralda' filma 22:40

Ume bat bahitu eta Amazonako tribu batek jasoko du. Euren ohi-turak ikasiko ditu, gerrari bilakatuz.

07:30 Los Lunnis. Oso Yogui, Ed, Eddy y Eddy, Aventuras en pañales eta Flimbes. 09:55 El joven Hércules. 10:40 La historia interminable. 11:20 Dawson crece. Fin de semana perdido. 12:10 Los vigilantes de la playa. 13:00 Los Lunnis. La serie, Agallas, El perro cobarde, Digimon eta Los minimonstruos. 15:15 Saber y ganar. 15:45 Grandes documentales. Gorilas, de las tinieblas a la luz. 17:30 Los Lunnis. 20:00 Informativo territorial. 20:30 Mi extraña pareja. 21:00 Vivir con Mr. Cooper. 21:55 Sorteo de la Bonoloto. 22:00 La 2. Noticias. 22:35 El tiempo. 22:40 Cine de verano. La selva esmeralda. Zuzendaria: John Boorman. 1985. Charlie Boorman, Powers Boothe, Meg Foster. 01:00 Metropolis. 01:30 Natación. Mوندو Txapelketa. 02:00 El ala oeste de la Casa Blanca. 02:45 Festival de Jazz de Vitoria. 04:15 Gata salvaje.

Antena 3



Izua New Yorken, badator 'Godzilla' 21:45

Astelehenean emango dute aurrekontu galant izan zuen filma. Godzilla ur azpitik dator, dena apurtzeko gertu.

06:00 Las noticias de la mañana. 08:00 Megatrix. Moesha, Cedric, Jimmy Neutron, Cosas de gemelas, Art Attack, El show de Bernie Mac eta El Principe de Bel Air eta Mac Gyber. 14:00 Los Simpson. Solito otra vez, naturalmente eta misionero imposible. 15:00 Noticias 1. 15:50 El tiempo. 16:00 Pasión de Gavilanes. 17:45 Estoy por ti. Anabel Alonsorekin. 18:45 El diario de Patricia. 20:15 Pasapalabra. Gonbidatuak: Josemi Rodriguez, Salomé, Agustín Bravo, eta Paola Dominguin. 21:00 Noticias 2. 21:45 El peliulón. Godzilla. Zuzendaria: Roland Emmerich (1998). Aktoreak: Matthew Broderick, Jean Reno, Maria Pitillo. Niko Tatopoulos itsasontzi bati egindako eraso aztertzen dabilen biologoa da. Zerk eraso du itsasontzia? 00:45 7 días, 7 noches saioa. Teresa Viejorekin. 02:10 Noticias 3. 02:40 Televenta. 05:00 Saioen errepikapenak.

Tele 5



Gerraren nondik norakoa alda dezake 21:45

Medical investigation saioan, erizain batek Irakeko gerraren norabidea aldatzeko aukera izango du.

06:30 Helicops. Domingo sangriento. 07:30 Informativos Telecinco matinal. 09:10 Embrujadas. Oscuro como Cole. 10:00 Operación Triunfo. 10:45 El programa del verano. 14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Carme Chaparrarekin. 15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin. 16:30 A tu lado. Yolanda Floresekin eta Felix Alvarezekin. 19:30 Alla tú. Jesus Vazquezekin. 20:30 Informativos Telecinco. Angels Barceló eta Agustín Hernandez. 21:15 Operación Triunfo (laburpena). 22:00 Medical Investigation. Volver a casa. 00:00 Crónicas marcianas. 02:20 Informativos Telecinco. Alvaro Rivasekin. 02:45 Madrugada de cine. Aguas contaminadas. Zuzendaria: Bill L. Norton. Kimika-ingeniari bat konturatu den bakteria bat dagoela hiriko ur hornitzailean. 04:30 Infocom.

Astean GOITBn

Astelehena, 18



'Harmailatik' | 21:00, 22:30

Pirinioetara iritsi dira Tourra eta euskaldunak

Ibarretik joandako ehunka lagun izan dira asteburuan Pirinioetan, Tourrereko mendiko etapak jarraitzen, eta hantxe izan dira Goitb-ko kamerak ere, giroa jasotzeko.

Martitzena, 19



'Jaiak 2005' | 21:30, 23:00

Antzuolako jaietan barrena, atsedean barik

Aurten ere ez diogu kale egingo Maiuraren alardeari, ez eta gainerako ekitaldiei ere. Jaiak 2005 saioan, Antzuolako jaietako giro ederraren berri izango duzue.

Eguaztena 20



'Marrakiz bizid.' | 13:50, 20:30

Lazkao Txikiren abenturak eta...

Astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan Lazkao Txikiren istorioak jarraitu ditzakezue. Eguerdian ikusi ezin duenak, arratsaldean izango du aukera.

Eguena, 21



'Chiloé' | 21:30, 23:00

Finlandiaren berri emango digu Maider Eguesek

Finlandia, Artiko ezkutukoa izenburupean, Maider Eguesek eta bere lankideek Eskandinaviaraino eramango gaituzte, hango parajeen eta ohituren berri emateko.

Egubakoitza, 22



'Ilunpean' | 21:30, 23:00

Gari abeslariari egindako elkarrizketa

Ilunpean saioak amaitu du denboraldia, baina gordeta geratu dira elkarrizketa ederrak. Egubakoitzean, Oihanak Gari abeslariari egindako elkarrizketa egongo da ikusgai.



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatza s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI

Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51



Hamarrekoa

AMAIA ARRIARAN | TABERNARIA

"Gazteenak mimatuenak garela baieztatu dezaket, oso ondo zaintzen naute ni"

Oihana Elortza

1. Zer moduz dago orain Bergarak Elgetarako bidea?

Lehen baino askoz hobeto. Dena dela, estres handia dagoela ikusten da errepidean. Ni poliki ibiltzen naiz, kontuz. Beno, egia esan, nire autoa ere ez dago abiadura handian ibiltzeko moduan.

2. Zenbat aldiz egon zara Iruñan aurtengo San Ferminetan?

Behin. Astelehen gauean joan ginen. Lehenengo, kontzertu bat ikusten izan ginen Gasteizen eta 02:00ak aldera iritsi ginen Iruñara. Urtero joaten naiz.

3. San Ferminetako gauak ala egunak disfrutatzen dituzu?

Gauak, orain arte. Dena dela, adinagatik edo, hasi naiz egunak ere disfrutatzen. Sekulako giroa egoten da.

4. Bertatik bertara ikusten dituzu entzierroak?

Santo Domingo aldapa ondoan taberna bat dago. Salda hartzen dugun bitartean, telebista ikusten dugu entzierroa eta zezenak ondolik nola pasatzen diren entzuten dugu tabernako leihotik.

5. Zergatik behar du zinea Bergarak? Zinea bakarrik ez, areto bat behar du Bergarak, zinea, antzerkia edo bestelako ikuskizunak bertan egiteko. Esan liteke Bergara hilda dagoela alde horretatik. Eskerrak herritarrek zer edo zer antolatzen duten.

6. Etxeko gazteenak ez zarete mimatuenak eta bihurrienak. Ados zaudete? Ni, behintzat, oso ondo zaintzen naute. Askok mimatu naute eta ez dut inolako kezarik.

7. Buruko min handia ematen dizu egunero menua prestatzeko? Sukaldariak hartzen du lan hori. Nik tabernako lanak egiten ditut, eta mahaiak zerbitzatu.

8. Pentsatu duzu inoiz San Ferminetan taberna batean lan egitea? Ez nuke nahi. Egun asko dira, jende mordo ibiltzen da eta lan gogorra izango dela iruditzen zait. Nahiago dut egun pasa edo gaupasa egin, lana baino. Hala ere, konturatu naiz prezioak hemengoak baino dezente altuagoak direla. Bergaran baino garestiagoa da poteatzea Iruñako San Ferminetan.



AINZANE AGIRRE

Bergarako Zuhazti tabernan egiten du lan Amaiak. Baina tabernaria izateaz gain, Arrasate Musikal Big Bandeko abeslaria da. 34 urte ditu eta Elgetan bizi da azken hiru urte hauetan. Hiru anai-arrebetan gazteena da. Segapoto barik bizi da oraindik; etxean edo tabernan egoten ei da, eta bestela, inork jakin behar ez duen tokian. Telefono kabinak erabiltzen ditu.

9. Zer nahiago duzu: Espoloi, udako gauetako domeka goizetako musika bandarenak nahiago? Gautxori samarra naiz eta nahiago ditut gauak, bai lanerako baita disfrutatzeko ere.

10. Egingo du udako birazu abeslari zaituen Arrasate Musikal Big Band taldeak? Ez, oporretan egongo gara udan. Musika ikasleak dira taldeko gehienak eta ikasturteak duen egutegi bera egiten dugu.



Biharamuna

Iban Arantzabal

Galdumiña

Aste akaberako hasieran egon nintzan futbol-kanpuan. Elgetarrak nagusi ipintzan eta futbola irabazle aste-buruko kronikan. Irabaztiak emoten dabenez plazerrarekin egingo zeben juergia Antzuolan jokalarixek.

Nik nahixago izan neban Espoloiara juatia, Zuhazti aurrera. Han ez zan egon galtzaillerik. Entzultion belarrixak irabazle. Jairo Zabalen taldea danon gustokua, kalitadeduna eta duan. Berrigarako portadan "kultura eske" agertzen diran asko ez nintuan ikusi han. Ez dira egongo eraikin eske bakarrik, ezta?

Asteburu honetan enterau naiz galtzaillak Arrasaten egongo dirala laster. Joxe Arantzabalen Faruan irakurri dot. Azaruan, Hire liburu-dendia itxi egingo debela esan ei dotsa Pilar Martinez de Ubagok. Ni Bergarako Josunenian, Bilintxen, egon barri nago Eneko Aritzaren Hilobia liburuaren erosten. Ez dot nahi pentsatzia be liburu-dendak ixten egotia zer esan gura daben. Literatura ez da negoziua liburu-dendako be? Liburu eta aurretik editoriek zorrotzegi begiratzi az gain ez da egongo nun saldu be?

Kezkia harutzau doia, baiña. Igor Leturiak idatzi zeban zapatuan, Faroko erantzun batian: "Trenik ez, ganorazko garraio publikorik ez, zinemarik ez, orain liburu-dendarik ere ez... Zer gertatzen zaio Arrasateri? Euskal Herriko herririk garrantzitsuenetako izango da, industria eta unibertsitatea izango ditugu, baina zerbitzuetan...". Politikuek badake nun eta zer egin.

www.goiena.net-eko

BLOG KOMERTZIALAK

Zure negozioa Interneten egoteko modu errazena eta merkeena

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:

www.goiena.net/blogak • Posta-e: azabarte@goiena.com • Tel.: 943 76 92 70

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

www.goiena.net/blogak/4quattro4
www.goiena.net/blogak/arregi
www.goiena.net/blogak/atai
www.goiena.net/blogak/joseba
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
www.goiena.net/blogak/ohiak

www.goiena.net/blogak/gallastegi
www.goiena.net/blogak/udalatz
www.goiena.net/blogak/vitoria
www.goiena.net/blogak/udalaitz
www.goiena.net/blogak/pando
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

